




> 2006ko urria

> **SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**



**SAKANAKo
Euskararen Kale
Erabileraren Neurketa**

*2006ko urrian
egindako neurketa*



SAKANAKO EUSKARAREN KALE ERABILERAREN NEURKETA

1	Sarrera	3
1.1	Erabilera neurtzearen beharra	3
1.2	Euskal Herriko Neurketa	3
1.3	Erabilera datuen garrantzia herri mailako hizkuntza planifikazioan.....	4
2	NEURKETA nola egin dugun	5
2.1	Neurketa egunak eta orduak	5
2.2	Aztertutako zonaldeak eta neurketarako ibilbideak	5
2.3	Neurketarako metodologia	6
3	Neurketaren EMAITZAK	9
3.1	Emitza orokorrak	9
3.2	Herriz herriko emaitzak	10
3.3	Erabileraren bilakaera udalerrika	12
3.4	Adin taldekako emaitzak	13
3.5	Adin taldekako emaitzen bilakaera.....	20
3.6	Neurketa egunen araberako emaitzak	22
3.7	Sexuaren araberako emaitzak	24
3.8	Haurren presentziaren eragina.....	28
3.9	Taldearen osaera	37
3.10	Beste hizkuntzak eta bakarrizketak.....	43
4	Hizkuntza GAITASUNA eta BILAKAERA herrian	44
4.1	Sakanako ezagutza (01)	44
4.2	Ezagutzaren bilakaera.....	47
4.3	Adin taldekako ezagutzaren bilakaera	51
5	Emaitzen AZTERKETA ETA ESANAHIA	59
5.1	Espero daitekeen erabilera: kontzeptuaren azalpena	59
5.2	Erabilera erreala eta espero daitekeen erabilera	60
5.3	Eskualdeko, probintziako eta Eskal Herriko datuekiko alderaketa	66
6	Datozen urteetarako BEGIRA Prospekzio (2006-2016)	69
7	ERANSKINAK	79
7.1	<i>Txillardegiren</i> eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa.....	79
7.2	Neurketa arauak eta oharrak.....	84
7.3	Fitxak.....	87
7.4	Emitza orokorrak	89

1 SARRERA

1.1 Erabilera neurtzearen beharra

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko **euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean erabiltzen den euskararen neurketa**, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (erroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegietako matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Hala ere, herrian euskararen normalizaziorako ahaleginen ondorioak eta denborarekin ematen diren aldaketak eguneroko erabileran islatzen dira; gure herriko esparru ezberdinetan, besteak beste, herriko kaleetan. **Kale erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.**

Kontuan izan behar dugu, hizkuntza egoerari buruz ematen diren datu gehienak, oro har, hiztunek inkestetan aitorturiko datuak direla (erroldakoak, inkesta bidezko ikerketak, etab.). Hau horrela da, besteak beste, erabilera modu errealean neurtzea ez delako erraza izaten. **Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketak kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak eskaintzen dizkizue.** Horretarako, gainera, **oinarri metodologiko sendoa dugu.** Gaur egun Soziolinguistika Klusterra arduratzen da Euskal Herri mailan Kale Erabileraren Neurketa egiteaz eta horrez gain zenbait udalerritan ere egin ditugu honen antzeko neurketak (esate baterako, gaur egunera arte 40 bat herritan burutu ditugu neurketak SEI Elkartearen izenean, eta beste hainbeste Soziolinguistika Klusterraren izenean).

1.2 Euskal Herriko Neurketa

Sakanan egin dugun Kale Erabileraren Neurketaren **oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da**, baina kasu honetan herriko berezitasunetara egokituta.

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa Orokorra 1989. urtean egin zen lehen aldiz eta geroztik lau urtez behin errepikatu da (2001etik aurrera bost urtez behin): 1993an, 1997an, 2001ean eta 2006an ere egin da. Azken neurketan bezala, hemendik aurrerakoak ere bost urtean behin egingo dira (besteak beste, erroldako datuekin bateratze aldera). Neurketa horretan Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako herri guztietan eta hemendik beherako batzuetan egiten dira neurketak. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan. 2006ko neurketan ikerketa sendotzeko hainbat aldaketa metodologiko egon dira. Guztira 63 neurtu dira, eta erabilera datuak fitxa bakarrean jaso dira (aurreko neurketetan ez bezala). Fitxa honetan informazio baliagarriena ahalik eta egokien jasotzeko lan handia egin da.

1998an EKB desagertu ondoren, **SEIk hartu zuen bere gain Neurketa Orokorra egitearen ardura** eta 2001eko azaroan bertan egin genuen IV. Neurketa. Modu horretan, beraz, **SEIk orain arteko neurketen oinarri metodologikoa eta esperientzia jaso du, eta orain, Soziolinguistika Klusterrak oinarri kontrastatu hau erabiliz egin du 2006an V. Kale Neurketa ere.**

1.3 Erabilera datuen garrantzia herri mailako hizkuntza planifikazioan

Kale Erabileraren datua funtsezkoa da herri mailan hizkuntza errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Euskararen aldeko sustapen lan bat aurrera eramanez ahal izateko baliabideak mugatuak izan ohi direnez, beharrezkoa zaigu premiarik larrienak zein diren ezagutzea, lehentasunak finkatzea, eta ondoren horiengan eragiteko ekimenak martxan jartzea.

Neurketak, besteak beste, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek **asko errazten digu ondoren lehentasunak non dauden identifikatzeko.** Gainera, Kale Erabileraren neurketak maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza aldaketak gertutik jarraitu ahal izango ditugu.

Alde horretatik, **2006ko hau** Kale Erabileraren Neurketan Sakanan egiten den **lehen neurketa ez denez**, eskualdean SEI Elkarteak 2001ean egin zuen neurketarekin alderatu eta dagokion interpretazioa egin ahal izango dugu. Horretarako, 2006ko Kale Erabileraren Neurketa honetan, Sakanan erabilitako diseinu eta metodologia bera erabiltzen saiatu gara. Izan ere, urte ezberdinetako neurketen jarraipen bat egiteak eta datuak konparatzeak du interesa, erabilerari dagokion bilakaera ezagutze aldera.

2 NEURKETA NOLA EGIN DUGUN

2.1 Neurketa egunak eta orduak

Sakanan Euskararen Erabileraren Kale Neurketa 2006ko urrian burutu da: hilaren 18an (asteazkena), eta 21ean (larunbata), hain zuzen¹.

Guztira ondorengo koadroan dituzuen hiru neurraldiak egin dira:

➤ Urriak 18, asteazkena,	18.00-20:00
➤ Urriak 21, larunbata,	11:00-13:00
➤ Urriak 21, larunbata,	18.00-20:00

2.2 Aztertutako zonaldeak eta neurketarako ibilbideak

Sakana osatzen duten hamabost herrietatik bederatzi herritan egin da neurketa eta bakoitzean ibilbide bat zehaztu da; kalerik jendetsuenak biltzen dituen ibilbidea, hain zuzen.

Hori horrela, Kale Neurketa ondorengo **bederatzi ibilbidetan** egin dugu, aipaturiko hiru neurraldietan:

↪ **Altsasu:** San Juan kalea - Intxaurren (kiroldegiraino) - Zelandi kalea - Burunda kalea - Erkuden kalea - Idertzagain - Urbasa kalea - Tomas Zumalakarregi plaza - Erkuden kalea - Iortia plaza - Udaletxe plaza - Txiki politik - Ferial kalea - Foruen plaza (elizari buelta)

↪ **Arbizu:** Kale Nagusia - Errekondo - Beldarrin - Fernando Urkia - eliza inguratuta Iruñeko etorbidera - Mikel Aingeru - Ilerdi - Mundiñu - Maiza - Beriain - Akerruntza - Uhalde.

↪ **Etxarri Aranatz:** Kale Nagusia - Maiza - Elizondo - Kale Nagusia - Lazkoz - Malda - Larrañeta - Burundabide - Malkarramendi - San Kiriko - Aldapasoro - Santa Kitz - Burundabide.

↪ **Irurtzun:** San Martin - Amaia (eskola atera eta buelta) - Trinitatea - Gernika plaza - San Miguel - Bi haizpea - udaletxe atzea - frontoi zaharra - Lizarra.

↪ **Iturmendi:** Monjen etxea - Estafeta (denda arte) - Ostatuko kalea - Frontoia - Arrano beltza plaza - Santa Maria kalera (Eztanda) - Arrano beltza.

¹ Egunei dagokionez, salbuespen bakarrak Altsasu eta Uharte Arakil izan dira: urriaren 21ean Altsasuko feriak ziren; ondorioz, neurketa urriaren 28ra atzeratu zen. Bestetik, Uharte Arakilen azaroaren 2an eta 4an egin zen neurketa.

↪ **Lakuntza:** herriko plaza - Madalen kalea - Kainada kalea - Mikel Arregi kalea - Larraina kalea - Abarrategi kalea.

↪ **Olazti:** udaletxea - Kale Nagusia – Etxeberriak – Larratxota - Errekalde plaza - Sarasate plaza - San Miguel plaza - Argomaniz plaza - Angel Gurmino – Goienkale - San Sebastián ermita - Portu kalea – Inguraketa - Klinker.

↪ **Uharte Arakil:** herriko plaza - Ibai kalea - San Juan - Ospitalalde (igo eta jaitzi) - Felipe Gorriti - Ibai kalea - udaletxe plaza.

↪ **Urdiain:** Barrenkalde (Herriko etxetik) – Plazalde - San Martinkalde – Goienkale - Portuko kalea – Otalde – Iturtxulo – Barrenkalde – Elizazpi - Frontoi ondoko kaletik futbol zelaira eta hortik eskolara - Elizazpi.

2.3 Neurketarako metodologia

Arestian aurreratu dugun moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan irizpide nagusia herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, etab. Ibilbidearekin batera, neurketarako egunak eta orduak ere definitu ditugu, eta hauen hautaketan gure helburua herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtu ahal izatea izan da; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek izatea estatistikoki neurtuak izateko aukera.

Neurtzaileak

Kale neurketa hauek egiten, guztira eskualdeko hogeita hamabi neurtzaile profesional ibili dira. Neurtzaile hauek neurketa horretarako beharrezko formazioa jaso dute Soziolinguistika Klusterraren eskutik, eta bertako irizpideei jarraiki bildu dituzte behatutako errealitateari buruzko datuak. Hauek dira, herriz herri, neurtzaile lanetan aritu diren herritarrak:

- **Altsasun:** Javi Ziordia, Iñaki Miguel, Oskar Rodríguez, Alfredo Alvaro.
- **Arbizun:** Monika Etxeberria, Aintzane Leitza, Irune Ginea, Iolanda Navarro.
- **Etxarri-Aranatzen:** Mikel Aingeru Goñi, Anaitz Igoa, Igon Anduaga, Edurne Igoa, Aritz Goñi, Edurne Beltza.
- **Iturmendin:** Santi Agirre, Asier Lanz, Esther Galartza, Miren Galartza.
- **Irurtzunen:** Tamara Angulo, Oihana Agea.
- **Lakuntzan:** Saioa Alegria, Igone Razkin.

- **Olaztin:** Jaione Santamaria, Egoitz Albarrazin, Garazi Albarrazin, Ione Aierdi.
- **Uharte Arakilen:** Iñaki Retegi, Aiora Razkin, Itziar Retegi.
- **Urdiainen:** Aitor Irigoien, Irantzu Etxeberria, Aitziber Zufiaurre.

Behaketa zuzena

Neurtzaile hauen ikerketa-metodologia behaketa zuzena izan da. Hau da, hiztunak neurketaren momentuan erabiltzen duen hizkuntza jaso dute zuzenean, ezertxo ere galdetu gabe. Horrela, neurtzaileek ibilbidean zehar topatzen duen jendeak darabilen hizkuntza jaso dute, horretarako espreski prestatutako fitxetan (ikus 3. eranskina).

Hiztunek, bada, ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jaso dute. Beraz, inkestaren bidez jasotako datuen subjektibotasuna baztertzen da, eta horrela emaitza fidagarriagoak lortzen dira.

Elkarrizketa hizkuntza

Ezaugarri metodologikoen artean aipatu beharreko beste bat honakoa da: neurtzen duguna, **norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa hizkuntza** dela. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarrizketa bat behatzen dugunean, **une horretan hizketan ari denaren hizkuntza** hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ariko direla, eta aldi berean suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela.

Kale erabileraren neurketa izanik, hiztun talde bakoitza une labur batean baino ez dugu behatzen, eta ondorioz metodologia honekin ezin dugu taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Kanean behatzen ditugun hiztun taldeek hizkuntza jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen ditugunak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak edota hurbilekoak izaten dira. Kasu hauetan, Euskal Herrian behatu ahal izan diren hizkuntza ohituren arabera, erabakita egoten da —inkontzienteki bada ere— zein hizkuntzatan izango den elkarrizketa.

Euskara ez dakiteneen kasuan erabaki hori automatikoa da (gaztelaniaz, alegia). Eta dakiteneen artean, pertsona bat ezagutu eta denbora gutxira finkatu ohi da berarekin zein hizkuntza erabili. Talde batean ere antzera gertatzen da: hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da eta aurrerantzean hiztun horien arteko elkarrizketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Jakin badakigu hizkuntza ohiturak aldatu ere egiten direla —ahalegin horretan dihardugu, hain juxtu— baina aldaketa ez da “berez” edo modu erraz batean gertatzen, eta hain zuzen aldakaiztasun horrek, hiztun jakinen arteko hizkuntza ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.

Fitxak

2006ko neurketa honetan erabilera datuak fitxa bakarrean jaso ditugu. Fitxa honen bidez, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, ondorengo hiru aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera izan dugu: sexuaren eragina, haurren presentzia eta neurtzen dugun taldearen osaera. Neurraldi guztietan fitxa berdina erabili da.

Laginari dagokionez, herriko biztanleria kontuan izanik erabileraren emaitzak adierazgarriak izan daitezten neurtu beharreko hiztun kopuru minimoa zenbatekoa den kalkulatu dugu. Lagin errepresentagarri horrek ezarritako gutxieneakoak gainditu ahal izan ditugu egindako neurketetan eta, hortaz, **neurketa horrek modu adierazgarrian islatzen du Sakanako kaleetan gaur egun euskara zenbat erabiltzen den.**

“Sakanarren” erabilera baino Sakanako kaleetako

Muga metodologikoak tarteko, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurketa honetan jasotakoa Sakanako biztanleen (*sakanarren*) erabilera denik. Horren orde, zuzenagoa da esatea Sakanako kaleetan jaso dugun erabilera dela hemen aurkezten duguna. Izan ere, ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik.

Bestalde, Kale Erabileraren Neurketa egitean neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak, eta ezin dugu aurreikusi kalean noiz norekin topo egingo dugun. Ondorioz, jasotako datuak adierazgarriak izanik ere, aztergai dugun aldagaia —euskararen kale erabilera, alegia— neurri txiki batean aldagarria da. Horregatik da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Edonola ere, erabilitako metodologiak bermea ematen digu neurketa bakoitzaren emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzeko.

Adierazgarritasuna

Esan bezala hainbat aldagaik erabileran duen eragina aztertu dugu neurketan: adina, sexua, eta taldearen osaera, besteak beste. Horretarako ibilbide berean bi orduko hiru neurraldi egin ditugu. Neurraldi guztietan hiztunaren adina jaso dugu (sei ordutan, beraz); baita hiztuna hurrekin dagoen ala ez, hiztunaren sexua, eta behatutako taldea adin talde bereko kideez osaturik dagoen ala ez ere.

Emaitzak aztertzerakoan laginaren tamaina izango dugu kontuan, laginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagai zenbat eta zehatzagoa izan lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Esaterako, behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar adina lagin (neurtutako pertsona kopurua) izango dugu, baina adin talde bakoitzean sexuaren araberako azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.


3 NEURKETAREN EMAITZAK

3.1 Emaizta orokorrak

2006ko neurketa honetan jasotakoaren arabera, **Sakanan euskararen kale erabilera (batez beste) % 26,3 da²**; alegia, kalean neurtu diren 100 elkarrizketetatik 26 entzun ditugu euskaraz, eta gainerakoak erdaraz (gaztelaniaz gain, beste hizkuntzak ere kontuan hartu ditugu azterketa honetan).

Bederatzi herriotan egindako neurketetan guztira 4.507 hiztuni dagozkien datuak jaso dira, bederatzi herriotako biztanleriaren % 27³ litzatekeena. Behatutako hiztun kopuru honek Soziolinguistika Klusterrak neurketaren emaitzen fidagarritasuna bermatzeko ezarritako gutxienekoa gainditzen du, eta hortaz, **neurketa honetan lortutako erabilera datuek oinarri sendoa dute laginaren tamainari dagokionean.**


Euskararen KALEKO ERABILERA (2006)	Euskararen EZAGUTZA (01)
% 26,3	% 37
Neurtutako hiztun kopurua	Sakanako (9 herriotako) hiztun kopurua (01)
4.507 (herritarren % 26,9)	16.730



² Eskualdeko datu orokorra ateratzeko, neurketa egindako bederatzi herrietako datuekin batez bestekoa atera da.

³ Neurketa egin dugun Sakanako 9 herriotan, guztira, 16.730 biztanle dira 2001eko erroldako datuen arabera. Kontuan hartzekoa da, dena den, kale neurketa batean zenbait hiztun behin baino gehiago neur daitezkeela edota neurtutako hiztunen bat herrikoa ez izatea gerta daitezkeela.

Bederatzi herriotako datuak bereizita jasotzen dira ondorengo diagraman, bakoitzaren ezagutza eta erabilera maila kontuan harturik:



3.2 Herriz herriko emaitzak


Herritarren leku publikoetako hizkuntza erabilera neurtzea helburu izanik, **behaketa herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan** oinarritu dugu. Zonalde horiek definitzeko, udalerrietako barruti eta auzo guztiak hartu dira kontuan, herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu da, eta behin zonalde horiek definitu ondoren, zonalde bakoitzaren barruan jarraitu beharreko ibilbideak erabaki dira, beti ere udaleko teknikariek elkarlanean.

Sakanako hizkuntza errealitatea ezagutu asmoz, beraz, behaketak herrika egin ditugu. Hala ere, **emaitzok datu orientagarriak eta hurbilpenekoak baino ez dira**, herri batetik besterako biztanleen mugimendua erreala baita; hau da, zaila suertatzen da barruti edo herri konkretu bateko errealitate soziolinguistiko zehatza antzematea, **mugikortasuna, barruti edo herrien artean**, etengabea delako.

Edonola ere, udal teknikariarekin adostutakoaren arabera, **Sakana 9 ibilbidetan (bederatzi herritan) banatuta burutu dira neurketak: Altsasu, Arbizu, Etxarri-Aranatz, Irurtzun, Iturmendi, Lakuntza, Olazti, Uharte Arakil, Urdiain.** Hona hemen bakoitzean behatutako hiztun kopurua eta euskaraz neurtutakoaren proportzioa ehunekotan.

Herri edo barrutiak	Neurtutako hiztunak	Erabilera batez bestekoa
Altsasu	865	% 8,9
Arbizu	395	% 74,2
Etxarri-Aranatz	712	% 51,5
Irurtzun	895	% 11,6
Iturmendi	165	% 23,6
Lakuntza	499	% 27,3
Olazti	495	% 8,9
Uharte Arakil	305	% 13,8
Urdiain	176	% 46,6

Neurtutako erabilera mailak diagraman ikus ditzakegu:



Diagraman ikus daitekeen moduan, beraz, udalerriei dagokionean **Arbizun jaso da erabilera indizerik altuena (% 74), alde handiz**. 23 puntu baxuagoa izan da Etxarri-Aranazko erabilera maila (% 51), eta 27 puntu baxuagoa, berriz, (% 47) Urdiaingo erabilera. Erabilera batez bestekorik **baxuenak, aldiz, Olaztin eta Altsasun (bietan % 9), jaso dira**; oso gertuan izan dituzte Irurtzun (hiru puntu altuagoa; % 12) eta Uharte Arakil (bost puntu altuagoa; % 14). Tartean ageri dira Iturmendi eta Lakuntza (% 24 eta % 27, hurrenez hurren). Horrenbestez, Arbizun behatutako erabilera Altsasun eta Olaztin behatutakoa baino 8 aldiz altuagoa izan da.

Dena den, esan bezala, udalerrri bakoitzeko datuak erreferentzia gisa erabiltzea aholkatzen dugu, ez udalerrri bateko eta besteko bizilagunen arteko erabilerearen konparaketak egiteko. Hala ere, kasu honetan nabarmena da **Arbizun euskararen erabilera Sakanako gainerako zonaldeetan baino altuagoa** dela. Eta jarraian, Etxarri-Aranatzen eta Urdiainen ere nabarmen altuagoa da erabilera gainerako sei udalerrietan baino.

Aurreko urteetako neurketekin alderatzea interesgarria da, udalerrika joera nagusia zein den ezagutu dezagun. Horrela, udalerrietako datu hauek jasotako lehendabizikoak ez direnez, aurreko urteetako neurketekin aldera ditzakegu, modu horretara ondorio zuzenagoak eta fidagarriagoak atera ditzakegularik.


3.3 Erabileraren bilakaera udalerrika

Herriko euskararen erabilera aztertzekeo garaian, erabileraren bilakaerari erreparatzeak berebiziko garrantzia du: batetik, normalizazio mailan egindako ahaleginen ebaluaziorako informazio interesgarria eskainiko digulako, eta bestetik, ondorengo urteetako jokaerak aurreikusten ere lagun diezagukeelako.

Sakanan, zenbait herritan, 1993an eta 1997an ere badira erabilera datuak, EKBk Euskal Herri mailan egindako neurketari dagozkionak. Kontua baina, zera da: 1993an udalerri bakarra neurtu zela, eta 1997an lau udalerri. **Azken bi neurketetan, berriz, (2001ean eta 2006an) bederatziz udalerri neurtu dira Sakanan.**

Hori kontuan izanda, **emaitzak alderatzeko eta bilakaera aztertzekeo 2001ean eskualdean egin zen neurketa hartu dugu kontuan.** Horretarako diseinua eta erabilitako metodologia berbera izan zitezten ahalegindu gara, eta, ibilbideetako kale gehienak bat datozela esan dezakegu. Hortaz, sistematikoki eta modu berean egindako neurketak direnez, datuen konparaketa jaso dugu jarraian. Argi adierazi nahi dugu, berriro ere, konparaketa behar bezala egiteko neurketaren diseinuak berbera izan behar duela.

Gatozen, bada, bilakaerara. Hona hemen 2001etik 2006rako euskararen erabilera grafikoki azaldua:



Neurketa hauetako erabileraren bilakaera aztertzean, garrantzitsuena joera orokorrean erreparatzea izan ohi da, datu zehatzei baino. 2006ko neurketan jasotako datuen arabera, **eskualde mailan** (beti ere 9 herriotako datuak kontuan hartuta), **erabilera mailak gora egin du azken bost urteotan: 2001etik 2006ra 6 puntuan igo da Sakanan euskararen erabilera.**

Bederatzi herriotako datuak banan-banan begiratuta, herri batzuetan gora egin du erabilerak, baina beste batzuetan, aldiz, jaitsi egin da erabilera bost urteotan. **Erabilerak gora egin du sei herritan:** nabarmenen Iturmendin (17,3 puntu), eta jarraian, Olaztin (8,3 puntu), Uharteko Arakilen (6,4 puntu), Irurtzunen (4,5 puntu), Lakuntzan (1,5 puntu), eta Altsasun (1,4 puntu). **Erabilera jaitsi egin da, berriz, beste hiru herriotan:** Arbizun (9 puntu), Urdiainen (7 puntu), eta Etxarri-Aranatzen (5 puntu)


Datozen urteetan, beraz, arretaz jarraitu beharko zaio bilakaerari, erabilera jaitsi den herrietan joera hori eteten den ikusteko, eta erabilera igo den kasuetan, berriz, bilakaera horri eusten zaion ikusteko. Horretarako, aurretik esan dugun moduan, diseinua eta metodologia zehazki errespetatzea ezinbestekoa izango da.

3.4 Adin taldekako emaitzak

Neurketako datuak adin taldeka bereizita jaso ditugu. Eta adin taldeak, berriz, honela banatu ditugu:

↔	Haurrak:	0 urtetik 14 urte bitartekoak
↔	Gazteak:	15 urtetik 24 urte bitartekoak
↔	Helduak:	25 urtetik 64 urte bitartekoak
↔	Adinekoak:	65 urtetik gorakoak

Egindako neurketa guztiak batuta, honako hau da adin talde bakoitzean neurtutako euskararen erabilera, Sakanako bederatzi herrietako datuak kontuan hartuta:



Diagraman ageri den moduan, **euskara gehien erabiltzen dutenak haurrak dira (% 30). Euskara gutxien erabiltzen dutenak eta batez bestekotik behera gelditzen diren bakarrak, ostera, helduak dira (% 22,7); dena dela, haurren erabilera mailatik helduen erabilera mailara 7 puntuko aldea besterik ez dago Sakanan. **Gazteen erabilera % 26,4 izan da** (haurrena baino 3,6 puntu baxuago); **eta gazteena baino puntu bat gorago ageri da, berriz, adinekoen erabilera maila (% 27,4).****

Aipagarria da haur eta gazteen arteko erabileran alde nabarmenik ez izatea. Euskal Herri mailan eta beste herri askotan egindako neurketetan, antzeman ahal izan dugu haur eta gazteen erabileraren arteko tarte nabarmena. Bistan da, horrela, Sakanan haurretariko gehienek beren hizkuntza ohiturak mantentzen dituztela gazte izatera pasatzen direnean. Zinez funtsezkoa da datu hau, beraz, datozen urteetan hizkuntza bilakaerak hobera egin dezan.


Helduak dira, horrenbestez, Sakanako erabilera orokorraren indizea gainditzen ez bakarrik. Dena dela, nabarmentzekoa da adin-talde guztien erabilera maila, batez beste, % 22 eta % 30 bitartekoa del. Ez dago koska edo alde handirik, beraz, adin-talde ezberdinen erabileren artean.

Dena den, aipagarria da eskualdeko herri batetik bestera datuak asko aldatu direla (haur eta gazteen erabilerari dagokionean, batez ere). Jarraian ikusiko ditugu herriz herri jasotako datuak zein izan diren.

Ezagutza mailak kontuan hartuta (atal hau aztertzeko Sakanako 9 herriotako datuen batez bestekoak hartu ditugu erreferentzia modura), Sakanan erabilerari dagozkion emaitza hauek logikoak direla esan daiteke. Urte askotako irakaskuntzako ahaleginei esker adin-talde euskaldunenak haurrena eta gazteena dira ezagutzari dagokionez, eta neurketak adierazten digunez, Sakanan baita kaleko erabileran ere. Gazteen ezagutza maila haurrena baino 11 puntu baxuago ageri da; nabarmentzekoa da, erabilerari dagokionez aldea dezente txikiagoa dela bi adin-talde hauen artean (4 puntu eskaseko aldea). Euskal Herri mailan ohikoa da haur izatetik gazte izatera pasatzean, hizkuntza ohiturak ere aldatzea; eta askotan, haur izatetik gazte izatera pasatzean erabilera mailak behera egiten du. Sakanan, ordea, hizkuntza ohitura aldatze hori ez da hain nabarmena izan.


Adin-taldekako emaitzak, herriz herri:

Adin-taldea banatuta jasotako datuak herriz herri aztertuko ditugu jarraian, joera antzekoa izan arren, herri batzuetatik besteetara diferentziak izan baitira:



ALTSASUn, oro har, datuek joera ezberdina erakusten dute Sakanako batez besteko datuekin alderatuta. Sakanan bezala, haurrak izan dira erabilera maila altuenekoak (% 13). Baina gazteen erabilera, haurrenarekin alderatuz gero, erdira jaisten da Altsasun (% 6, 4). Helduen erabilera, batez bestekotik gorakoa izan da (% 10); haurren erabilera baino 3 puntu baxuagoa besterik ez. Eta azkenik, adinekoen artean entzun diren elkarrizketa guztiak gaztelaniaz entzun dira.


Kasu honetan, adinez adin Altsasuko ezagutza datuei erreparatuta, ez da harritzekoa haurren erabilera gazteenaren gainera agertzea (haurren ezagutza gazteena baino 11 puntu altuagoa da Altsasun). Esanguratsua da, ordea, helduen erabilera gazteenaren eta adinekoenaren gainera agertzea; izan ere, helduen ezagutza gazteena baino 27 puntu baxuagoa baita, eta adinekoena baino 16 puntu baxuagoa.



ARBIZUn jasotako datuek ere, diagraman ikus daitekeen moduan, Sakanako batez bestekoekin alderatuta joera ezberdina erakusten dute. Erabilera mailarik altuena gazteengan (% 89) eta adinekoengan (% 86) jaso da. Haurren erabilera, berriz, gazteena baino 17 puntu baxuagoa izan da (% 72). Eta azkenik, erabilera maila baxuena helduengan jaso da (% 65), haurrengan baino 6 puntu baxuagoa.


Ezagutza datuei erreparatuta, gazteen ezagutza maila haurrena baino puntu bat altuagoa da; erabileran, aldiz, aldea nabarmenagoa dela ikusi dugu. Adinekoen ezagutza, berriz, helduena baino 3 puntu altuagoa da (eta kasu honetan ere erabileran aldea nabarmenagoa da).

Nabarmenezkoa da Arbizun, adin talde guztien erabilera % 65etik gorakoa dela; Sakanako bederatzirekin alderatu, daturik altuenak bertan jaso dira, hain zuzen.




ETXARRI-ARANATZEN, Arbizun bezala, erabilera maila altuena gazteengan jaso da (% 69). Haurren erabilera gazteena baino 13 puntu baxuagoa izan da (% 56). Jarraian, herriko batez bestekoa baino 1,5 puntu baxuago adinekoen erabilera ageri da (% 50). Eta azkenik, erabilera mailarik baxuena helduengan jaso da (% 41), adinekoengan baino ia 10 puntu baxuago, hain zuzen.

Etxarri-Aranazko kasuan ere, gazteen ezagutza maila haurrena baino puntu bat altuagoa da. Eta adinekoen ezagutza maila helduena baino lau puntu altuagoa. Erabilerari dagokionez aldea handiagoa izan da adin-talde hauen artean.




IRURTZUNen helduengan jaso da erabilera mailarik altuena (% 13,5), haurren baino puntu bat altuagoa (% 12). Erabilera nabarmen jaitsi da bai gazteen artean (% 2) eta baita, batez ere, adinekoen artean ere (% 0).

Kasu honetan, adinekoen ezagutza maila helduena baino zertxobait altuagoa da; baina ez da euskararik entzun adinekoen artean. Gazteen ezagutza, berriz, haurrenaren parekoa izan arren, erabilera nabarmen baxuagoa da.




ITURMENDIIn jaso diren datuek Irurtzunen jasotako antzeko joera erakusten dute, Irurtzunen oro har indize baxuagoak izan arren. Kasu honetan haurren jaso da erabilerarik altuena (% 31), baina helduen erabilera, jarraian, gertuan izan da (% 24). Erabilera nabarmen jaitsi da gazteen artean (% 11), eta adinekoen artean, Iturmendin ere ez da euskararik entzun.

Ezagutza datuei erreparatuta, ez da harritzekoa Iturmendin gazteen erabilera haurrenaren azpitik agertzea (haurren ezagutza gazteena baino 28 puntu altuagoa baita). Adinekoen ezagutza, ordea, helduena baino 5,5 puntu altuagoa izan arren, ez da horrelakorik jaso erabileran.




LAKUNTZAn, haurren eta adinekoen erabilera maila herriko batez bestekotik gora ageri da, % 39 eta % 34, hurrenez hurren. Gazteengan jaso da erabilerarik baxuena (% 17), eta ondoren helduengan (% 20). Ezagutza datuei erreparatuta, helduen ezagutza gazteena baino baxuagoa da alde handiz; erabilerari dagokionez, ordea, ez da horrelakorik jaso.




OLAZTIn jaso diren datuek Iturmendin jasotako osorik antzeko joera erakusten dute, Olaztin oro har indize baxuagoak izan arren. Kasu honetan haurren jaso da erabilerarik altuena (% 14), eta helduen erabilera, jarraian, nahiko gertuan izan da (% 9). Erabilera nabarmen jaitsi da haurren erabileratik gazteenera (% 5), eta adinekoen artean, azkenik, Olaztin ere ez da euskararik entzun.

Ezagutza datuei erreparatuta, ez da harrizkoa Olaztin gazteen erabilera haurrenaren azpitik agertzea (haurren ezagutza gazteena baino 28 puntu altuagoa baita). Adinekoen ezagutza ere, helduena baino 4 puntu baxuagoa da Olaztin.



UHARTE ARAKILen jaso diren datuek ere Olaztin jasotako en oso antzeko joera erakusten dute. Kasu honetan ere haurrengan jaso da erabilerarik altuena (% 19), eta helduen erabilera, jarraian, nahiko gertuan izan da (% 15,5). Erabilera nabarmen jaitsi da haurren erabileratik gazteenera (% 10). Eta adinekoen artean jaso da, azkenik, erabilera mailarik baxuena Uhartean ere: % 3, hain zuzen.

Ezagutzari dagokionez, kasu honetan ere, helduen ezagutza gazteena eta adinekoena baino dezente baxuagoa izan, erabileran gainera ageri da helduen indizea.



URDIAINen, azkenik, oro har indize nahiko altuak jaso dira. Kasu honetan, adinekoen artean jaso da erabilerarik altuena, alde handiz (% 81). Ondoren, 20 puntu gutxiagorekin gazteen erabilera maila ageri da (% 60). Haurren erabilera gazteena baino 14 puntu baxuagokoa izan da (% 46). Eta azkenik, helduengan jaso da erabilera mailarik baxuena (% 34).

Ezagutzari erreparatuta, kasu honetan ere haurren eta gazteen artean ageri dira indize altuenak (bietan % 86). Adinekoen ezagutza, berriz, helduena baino 7 puntu altuagoa besterik ez da.

Herri bakoitzeko datuak hartuta, beraz, adin-taldea banatutako datuei erreparatuta joera ezberdinak ikusten diren arren, ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

- **Haurren erabilera maila izan da herri gehienetan indize altuenekoa.** Bederatzi herritatik bostetan izan da horrela, hain zuzen: Altsasun, Iturmendin, Lakuntzan, Olaztin, eta Uhartean Arakilen. Dena dela, kasu guztietan ere, ez da alde handiz nagusitu; alegia, gainerako adin-taldeetara ez da egon, oro har, diferentzia handirik.

- **Gazteen erabilera, berriz, baxuena ez izan arren, helduenaren azpitik ageri da kasu askotan;** bost herrietan, hain zuzen: Altsasun, Irurtzunen, Iturmendin, Olaztin, eta Uhartean Arakilen. Arbizun eta Etxarri Aranatzan, erabilera indizearik altuena gazteen artean jaso da. Lakuntzan, berriz, indizearik baxuena. Eta Urdiainen, azkenik, gazteen erabilera indizea altua izan arren adinekoenaren azpitik ageri da.

- **Helduen erabilerari** dagokionez, Sakanako lau herriotan helduen erabilera gazteen eta adinekoen erabilera mailaren gainetik ageri da: Altsasun, Iturmendin, Olaztin, eta Uharte Arakilen. Helduena izan da, berriz, erabilera maila baxuena Arbizon, Etxarri Aranatzen, eta Urdiainen. Irurtzunen, erabilera maila altuena helduengan jaso da, haurren indizea ere oso gertuan izan arren. Eta Lakuntzan, azkenik, indizerik baxuena gazteen artean jaso arren, helduena ere oso gertuan izan da.


- **Adinekoen erabilerari** dagokionez, azkenik, adinekoen artean ez da euskararik batere entzun bederatzi herrietatik lautan: Altsasun, Irurtzunen, Iturmendin, eta Olaztin. Eta Uharte Arakilen ere helduen artean jaso da erabilerarik baxuena. Urdiainen, berriz, adinekoen artean jaso da erabilerarik altuena; eta Arbizon ere, indizea oso altua izan da, gazteen erabilera mailarekin batera.

3.5 Adin taldekako erabileraren bilakaera

Herri batean euskararen erabilera aztertzeko garaian erabileraren adin taldekako bilakaera bereziki garrantzitsua da. Normalizazio mailan egindako ahaleginen ebaluaziorako datu zehatzagoak lor ditzakegu, eta neurri batean, ondorengo urteetako jokaerak ere aurreikus genitzake.

Aurretik esan dugun bezala, Sakanan euskararen erabileraren neurketak 2001ean ere egin ziren. Emaitzak alderatzeko, beraz, 2001ean eskualdean egindako neurketara jo dugu. 2006ko neurketan erabilitako diseinua aurreko neurketan erabilitako berbera izan denez, konparaketa honek, erreferentzia soil izatetik haratago, ondorio zuzenak ateratzeko balio diezaguke.

Hona, segidan, azken bost urteotan adin talde ezberdinek erabilerari dagokionean izaniko bilakaera, diagrama bakar batean jaso:



2001eko datuak 2006koekin alderatuta, Sakanan erabilerak adin-talde guztietan egin duela gora ikus dezakegu. Adin-talde guztietan ere, igoera antzeko neurrikoa izan da: 4-7 puntu bitartekoa, hain zuzen. Haurrengan 7 puntukoa izan da igoera; helduengan 6 puntukoa; adinekoengan 5 puntukoa; eta azkenik, gazteengan 4 puntukoa.

Sakanako bederatzi herriotan, adin-talde bakoitzean bost urteotako bilakaera zein izan den ikus dezakegu ondorengo taulan. Sakanako batez bestekoan ikusi dugu adin-talde guztietan egin duela gora erabilerak, eta gainera, igoera antzeko neurrikoa izan da herri guztietan: 4-7 puntu bitartekoa, hain zuzen. Joera horretatik kanpo geratu diren kasuak aipatuko ditugu jarraian:

UDALERRIA	HAURRAK		GAZTEAK		HELDUAK		ADINEKOAK	
	2001	2006	2001	2006	2001	2006	2001	2006
Altsasu	% 8,6	% 12,9	% 0	% 6,4	% 7,9	% 10,1	% 15,4	% 0
Arbizu	% 87,2	% 71,7	% 100	% 88,6	% 77,9	% 65,3	% 71,4	% 85,5
Etxarri Aranatz	% 67,0	% 56,4	% 79,5	% 69,2	% 36,0	% 40,7	% 44,4	% 50
Irurtzun	% 12,6	% 12,3	% 2,6	% 1,7	% 7,9	% 13,5	% 2,4	% 0
Iturmendi	% 7,1	% 30,9	% 23,5	% 11,1	% 0	% 23,8	% 0	% 0
Lakuntza	% 26,2	% 38,9	% 38,4	% 16,7	% 18,1	% 19,6	% 29,8	% 34,4
Olazti	% 0	% 13,9	% 3,8	% 5,3	% 0	% 8,6	% 0	% 0
Uharte Arakil	% 2,4	% 19,3	% 11,8	% 10,1	% 9,1	% 15,5	% 0	% 2,9
Urdiain	% 52,7	% 46,2	% 30,8	% 60	% 44,6	% 33,7	% 81	% 80,8
GUZTIRA	% 23,1	% 30	% 22,6	% 26,4	% 16,9	% 22,7	% 22,2	% 27,4

- Altsasun, adinekoen artean 2001ean % 15 izan zen erabilera. 2006an, ordea, ez da euskararik entzun adinekoen artean.

- Arbizun, 2006an erabilerak behera egin du adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik (10-15 puntuko jaitsiera). Adinekoen erabilera maila, aldiz, 14 puntu igo da bost urte hauetan.

-Etxarri-Aranatzen, haur eta gazteengan behera egin du erabilerak: 11 puntu eta 10 puntu, hurrenez hurren. Helduengan eta adinekoengan, berriz, igo egin da erabilera maila 2001etik 2006ra.

- Irurtzunen, gazteengan eta adinekoengan zertxobait jaitsi egin da erabilera. Haurrengan, berriz, mantendu egin da erabilera maila.

- Iturmendin, haurren eta helduen erabilera maila nabarmen igo da (24 puntu, bi kasuetan). Gazteen erabilera, aldiz, 11 puntu jaitsi da (ez da euskararik entzun gazteen artean 2006an).

- Lakuntzan, gazteen erabilera maila erdira jaitsi da bost urteren buruan; 22 puntuko jaitsiera geratu da, hain zuzen ere.

- Olaztin, ez 2001ean ez 2006an, adinekoen artean ez da euskararik bat ere entzun.


- Uharte Arakilen, haurren erabilera igoera nabarmena gertatu da (17 puntukoa). Gazteengan, aldiz, 2001ean baino 2 puntu baxuagoa izan da erabilera maila.

- Urdiainen, azkenik, haurrengan eta gazteengan jaitsi egin da erabilera maila (6 puntu eta 11 puntu, hurrenez hurren). Gazteengan nabarmen igo da erabilera (30 puntu), eta adinekoengan, berriz, mantendu egin da erabilera maila.


3.6 Neurketa egunen arabera emaitzak

Sakanako herriotako erabilera aztertzeko hiru neurraldi nagusi egin dira. Asteazkenera bat eta aste bukaeran beste bi. 2006ko neurketa honetan, **izan dira antzekotasunak herriotan**, neurraldi batetik besterako erabilera mailak alderatuz. **Batez beste, euskararen erabilera maila altuena asteazken goizeko neurraldian** jaso da herri gehienetan. **Euskara gutxien** jaso den neurraldia, berriz, oro har, **larunbat arratsaldekoa** izan da.


Neurraldi bakoitzeko erabilera, Altsasun




Neurraldi bakoitzeko erabilera, Arbizun




Neurraldi bakoitzeko erabilera, Etxarri-Aranatzen




Neurraldi bakoitzeko erabilera, Irurtzunen






Neurraldi bakoitzeko erabilera, Iturmendin



Neurraldi bakoitzeko erabilera, Lakuntzan





Herriz herri datuak zein izan diren ikusita, nabarmentzekoa da, beraz, **asteazken goizeko neurraldi horretan jaso dela erabilerarik altuena** Altsasun, Arbizon, Etxarri-Aranatzen, Irurtzunen, Lakuntzan, eta Urdiainen. Olaztin eta Iturmendin larunbat arratsaldean jaso da erabilerarik altuena. Eta Uharte Arakilen, berriz, larunbat goizean.


Erabilerarik baxuena, berriz larunbat arratsaldean jaso da Altsasun, Arbizon, Lakuntzan, Uharte Arakilen, eta Urdiainen. Iturmendin eta Olaztin asteazkenean jaso da erabilera baxuena. Eta Etxarri Aranatzen eta Irurtzunen, berriz, larunbat goizean.

Dena den, ezin baieztatu dezakegu astegunean, oro har, gehiago erabiltzen denik euskara. Neurraldi batetik bestera (eta herri batetik bestera) alde batetik bestera da, eta beraz, egun batetik besterako neurketen emaitzak alderatuz ezin da ondorio garbirik atera, gure ustez.

Datozen urteetan neurketa egun eta ordu berdinetan egiten jarraituko balitz, konparaketak egiten jarrai daiteke. Oraingo kasuan, aldiz, **neurraldi bakoitzeko erabilera erreferentzia bat baino ez da**, eta egun guztietan orotara jasotako lagina da guretzat erreferentzia nagusia.

3.7 Sexuaren araberako emaitzak


Hego Euskal Herrian, hiztunaren sexuak, hau da, hiztuna emakumezkoa edo gizonezkoa izateak oro har ez du eragin esanguratsurik euskara erabiltzerakoan. Sakanan ere gauza bera ikusten dugu: jasotako datuen arabera, eta 9 herriotako batez bestekoa kontuan hartuaz, **gizonezkoek eta emakumezkoek euskara maila beretsuan erabiltzen dute**, diagraman ikus daitekeen moduan.




Gizonezkoen erabilera emakumezkoena baino puntu 1 altuagoa izan da. Aldea ez da nabarmena, aurretik esan dugun moduan, eta esan liteke emakumezkoek eta gizonezkoek euskaraz hitz egiteko antzeko joera azaldu dutela Sakanan.

Kasu honetan ere datuak herriz herri banatuta aztertuko ditugu, ea herri gehienetan joera bera izan den ikusteko:


Sexuaren eragina erabileran, Altsasun




Sexuaren eragina erabileran, Arbizun




Sexuaren eragina erabileran, Etxarri-Aranatzen




Sexuaren eragina erabileran, Irurtzunen




Sexuaren eragina erabileran, Iturmendin




Sexuaren eragina erabileran, Lakuntzan




Sexuaren eragina erabileran, Olaztin



Sexuaren eragina erabileran, Uharteko Arakilen






Oro har, beraz, herri bateko eta besteko datuak alderatuta, **herri gehienetan emakumezkoek euskaraz hitz egiteko joera handixeagoa agertu dute**: Iturmendin eta Irurtzunen izan da aldea nabarmenena (10 eta 7 puntu, hurrenez hurren). Arbizun, Lakuntzan, Olaztin, Uharte Arakilen eta Urdiainen, berriz, aldea oso apala izan da (2 puntukoa).

Altsasun eta Etxarri-Aranatzen, berriz, joera kontrakoa izan da: gizonezkoen artean erabilera maila altuxeagoa jaso da emakumezkoen artean baino. Dena dela, diferentzia ez da nabarmentzekoa izan: Altsasun puntu bakarra, eta Etxarri-Aranatzen 3 puntu.

Sexuaren araberako erabileraren bilakaera:

2001eko datuak ere baditugu Sakanako sexuari dagokion eraginaren bilakaera aztertzeko. Diagramari erreparatuta ikus dezakegun moduan, 2001ean ez zen azken neurketa honetako joera bera antzeman. Orduko hartan, emakumezkoek gizonezkoek baino euskararako joera handixeagoa azaldu zuten. Aldea, ordea, ez zen oso nabarmena izan: 3 puntukoa, hain zuzen.



Sakanako bederatzi herriotan, sexuari dagokionez bost urteotako bilakaera zein izan den ikus dezakegu ondorengo taulan. Sakanako batez bestekoan ikusi dugu, 2001ean emakumezkoetan erabilera altuxeagoa bazen ere, 2006an gizonezkoetan izan dela zertxobait altuagoa erabilera. Herriz herri, ordea, bilakaera desberdina izan da:

UDALERRIA	EMAKUMEZKOAK		GIZONEZKOAK	
	2001	2006	2001	2006
Altsasu	% 10,4	% 8,6	% 7,6	% 9,3
Arbizu	% 79,8	% 75,4	% 80	% 73
Etxarri Aranatz	% 56,3	% 49,6	% 56,2	% 53,4
Irurtzun	% 27,4	% 14,7	% 16,7	% 7,1
Iturmendi	--	% 29,4	--	% 19,6
Lakuntza	% 40,2	% 28	% 25	% 26,5
Olazti	--	% 9,8	--	% 7,8
Uharte Arakil	% 13,2	% 15	% 16,7	% 12,7
Urdiain	% 63,6	% 47,6	% 52,9	% 45,1
GUZTIRA	% 25,3	% 25,9	% 22	% 26,8


- 2001eko datuak 2006koekin alderatuta, **Irurtzunen, Lakuntzan, eta Urdiainen joera berdinari eutsi zaio** bi neurketetan: alegia, 2001ean eta 2006an ere emakumezkoetan erabilera altuagoa izan da gizonezkoetan baino.

- **Gainerako herrietan, ordea, joera aldatu egin da:** Arbizun eta Etxarri-Aranatzen, esate baterako, bi sexuen artean erabileran alderik ez egotetik, 2006an gizonezkoen artean erabilera altuxeagoa izatera, hain zuzen. Altsasun, 2001ean emakumezkoen erabilera altuagoa izatetik 2006an gizonezkoena altuxeagoa izatera. Eta Uharte-Arakilen, 2001ean gizonen erabilera altuxeagoa izatetik, 2006an emakumeen erabilera altuxeagoa izatera.

- **Iturmendin eta Olaztin,** 2001ean sexuaren aldagaia neurtu zen orduetan, bai gizonezkoen eta bai emakumezkoen erabilera % 0 izan zen. 2006an, ordea, bi herriotan emakumezkoen artean erabilera altuagoa jaso da.


3.8 Haurren presentziaren eragina

Haurren presentziaren aldagaia ere biziki interesgarria zaigu, kasu askotan euskararen erabileran eragin nabarmena baitu. Egin ditugun hainbat neurketatan (beste herrietan, Euskal Herrian...) haurrak tartean egotean euskararen erabilera nabarmen igotzen dela baieztatu ahal izan dugu. **Datuek adierazten dute arau orokor hau Sakanan ere betetzen dela.** Ikus dezagun ondorengo diagraman, haurrak egon ala ez, zenbatekoa den aldea:



Haurrik tartean ez denean erabilera % 21,5 den bitartean, **haurrak present daudenean, berriz, neurtutako erabilera 9 puntu altuagoa da (% 30,4)**. Ondorioz, haurrik ez egotetik egotera dagoen **hazkundera % 41,4³** da. Esan bezala, hortaz, Sakanako kaleetan elkarrizketa batean haurrak tartean egotearen aldagaiak eragin nabarmena du elkarrizketa euskaraz edo erdaraz izateko.

Segidan, neurketa egin dugun Sakanako herri bakoitzean datu hauek nolakoak izan diren ikusiko dugu. Herri guztietan haurren presentziaren eragina nabarmena izan dela ohartuko gara. Ikus dezagun, kasu bakoitzean, hazkundera zein izan den haurrik ez egotetik egotera:




Altsasan, haurrak ez egotetik egotera dagoen hazkundera % 189 izan da.


³ Indize hau, haurren presentziaren eragina erakusten duena, honela atera dugu: $(30,4 - 21,5) / 21,5 * 100$




Arbizun, berriz, haurrak ez egotetik egotera dagoen **hazkundera % 0,8** besterik ez da izan.




Etxarri-Aranatzen, haurrak ez egotetik egotera dagoen **hazkundera % 12** izan da.




Irurtzunen, haurrak ez egotetik egotera dagoen **hazkundera % 103** izan da.




Iturmendin, haurrak ez egotetik egotera dagoen **hazkundera % 46** izan da.




Lakuntzan, haurrak ez egotetik egotera dagoen **hazkundera % 111** izan da.



Olaztin, haurrak ez egotetik egotera dagoen **hazkundera % 921** izan da.



Uharte Arakilen, haurrak ez egotetik egotera dagoen **hazkundera % 210** izan da.



Urdiainen, haurrak ez egotetik egotera dagoen **hazkundera % 18** izan da.

Beraz, haurren presentziaren eragina erabileran nabarmenagoa izan da herri batzuetan beste batzuetan baino. Haurrak ez egotetik egotera erabileran dagoen hazkunderari esker neurtu dugu diferentzia hori.


- Olaztin izan du haurren presentziak eraginik nabarmenena; hazkundera % 921 izan da. Ondoren, haurren presentziaren eragina apalagoa izan arren, Uharte Arakil ageri da, eta bertan hazkundera % 210 izan da.

- Altsasun, Lakuntzan, eta Irurtzunen haurrik ez egotetik egotera, erabileran gertaturiko hazkundera % 100etik % 200era bitartekoa izan da: % 189, % 111, eta % 103, hurrenez hurren.


- Iturmendin zertxobait a apalagoa izan da haurren presentziaren eragina erabileran: % 46, hain zuzen.

- Azkenik, haurren presentziaren eraginik apalena (% 20tik behera) Urdiainen, Etxarri-Aranatzen, eta Arbizun gertatu da. Kasu hauetan, hazkundera % 18, % 12, eta % 0,8 izan da, hurrenez hurren.


Dena den, haurren presentziak zein eragin duen jakiteaz gain, interesgarria zaigu erabilera edo **komunikazio hori zehazki zein modutan gertatzen den** jakitea. Alegia, haurrek elkarrizketan zuzenean parte hartzen duten (mintzakide diren) edo ez diren mintzakide; eta horrek erabileran eraginik ba ote duen. Hori azaltzen digute, herriz herri, ondoren jaso ditugun diagramek:




Horrenbestez, **ALTSASUn erabilerak nabarmen egiten du gora haurrek mintzakide direnean:** baina ez haurren beraien artean, baizik **haurrek nagusiekin** elkarrizketan zuzenean parte hartzen dutenean (% 25). Izan ere, haurren beraien artean jaso diren elkarrizketetan erabilera nabarmen jaisten da (% 6). Haurrek presente egonda, elkarrizketan parte hartzen ez badute, nagusien arteko elkarrizketetan erabilera % 10 izan da; **haurren presentzia soilak, beraz, izan du eragina** Altsasun (haurrek ez denean, erabilera erdira jaisten baita).




ARBIZUn haurren presentziak ez du eragin esanguratsurik izan euskara erabiltzeko momentuan. Erabilerarik altuena haurrek zuzenean nagusiekin hitz egin dutenean jaso da (% 78). Baina oso gertuan izan dira beste kasuetan jaso tako erabilera indizeak ere. Haurrek presente egonda ere, elkarrizketan parte hartzen ez badute, nagusien arteko elkarrizketetan erabilera pare-parekoa izan da; **haurren presentzia soilak, beraz, ez du eraginik** izan Arbizun.




ETXARRI-ARANATZEN erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean: eta kasu honetan, bereziki **haurrek nagusiekin** elkarrizketan zuzenean parte hartzen dutenean (% 75). Haurren beraien artean erabilera 24 puntu baxuagoa izan da (% 51, hain zuzen). Haurrak presente egonda ere, elkarrizketan parte hartzen ez badute, erabilera nabarmen jaisten da (% 25). Eta beraz, **haurren presentzia soilak, ez du izan eraginik** Etxarri-Aranatz: haurrak presente ez izatean % 48 izan da nagusien erabilera, eta haurrak bertan izanda, berriz, % 25.




IRURTZUNEN ere erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean: baina bereziki **haurrek nagusiekin** elkarrizketan zuzenean parte hartzen dutenean (% 24). Haurrak presente egonda, elkarrizketan parte hartzen ez badute, erabilera 10 puntu jaisten da (% 14). Haurren beraien artean, berriz, erabilera oso baxua jaso da (% 3). Kasu honetan, **haurren presentzia soilak, izan du eraginik** nagusien erabileran: haurrak presente ez izatean % 7 izan da nagusien erabilera, eta haurrak bertan izanda, berriz, % 14; bikoiztu egin da, beraz, erabilera.




ITURMENDIko kasuan, erabilerak nabarmen egiten du gora haurrek beraien artean hitz egiten dutenean (% 37); haurrek nagusiekin elkarrizketan zuzenean parte hartzen dutenean, ordea, ez da batera euskararik entzun (% 0). Kasu honetan, **haurren presentzia soilak, eragin apala izan du nagusien erabileran**: haurrak presente ez izatean % 19 izan da nagusien erabilera, eta haurrak bertan izanda, berriz, % 21.




LAKUNTZAn, erabilerak gora egin du haurrak presente zirenean, bai haurren beraien arteko elkarrizketetan (% 34), baina bereziki **haurrek nagusiekin** elkarrizketan zuzenean parte hartzen dutenean (% 52). Haurrak presente egonda, elkarrizketan parte hartu gabe, nagusien arteko erabilera nabarmen jaitsi da (% 15). Kasu honetan, **haurren presentzia soilak ez du eraginik izan** nagusien erabileran: haurrak presente ez izatean % 18 izan da nagusien erabilera, eta haurrak bertan izanda, berriz, % 15.



OLAZTIn, erabilerak gora egin du haurrak presente zirenean, baina ez haurren beraien arteko elkarrizketetan, baizik **haurrek nagusiekin elkarrizketan zuzenean parte hartzen dutenean** (% 24). Haurren beraien artean, eta haurrak presente egonda elkarrizketan parte hartu gabe nagusien arteko erabileran ere jaitsiera nabarmena da; erabilera maila berdina jaso da bi kasuetan (% 5). Kasu honetan, **haurren presentzia soilak, izan du eraginik**: haurrak presente ez izatean % 1,4 izan da nagusien erabilera, eta haurrak bertan izanda, berriz, % 5.



UHARTE ARAKILen ere Olaztin jasotako joera antzekoa ikus dezakegu: erabilerak gora egin du haurrak presente zirenean, baina ez haurren beraien arteko elkarrizketetan, baizik **haurrek nagusiekin elkarrizketan zuzenean parte hartzen dutenean** (% 45). Haurren beraien artean, eta haurrak presente egonda elkarrizketan parte hartu gabe nagusien arteko erabileran ere jaitsiera nabarmena izan da; % 4 eta % 7,5 jaso da, hurrenez hurren. Uharten, ordea, **haurren presentzia soilaren eragina oso apala izan da**; ez da esanguratsua izan: haurrak presente ez izatean % 7 izan da nagusien erabilera, eta haurrak bertan izanda, berriz, % 7,5.



URDIAINen, azkenik, erabilerak nabarmen egin du gora haurrak presente zirenean, baina haurrek nagusiekin elkarrizketan zuzenean parte hartu dutenean (% 80). Haurren beraien arteko erabilera maila 50 puntu baxuagoa izan da (% 31). Haurrak presente egonda elkarrizketan parte hartu gabe ere, nagusien arteko erabilera nabarmen jaitsi da; % 42. Urdiainen, **haurren presentzia soilak ez du eraginik izan helduen erabileran.**

Ondorioz, eta laburbilduz beraz, esan dezakegu, **Sakanako herriotan, guztietan haurrak mintzakide izatean erabilerak gora egiten duela;** baina bada aipatzea merezi duen ezaugarririk:

1) Haurrak mintzakide izatean erabilerak gora egiten du. Baina **herri ia guztietan ez** haurren beraien arteko elkarrizketetan, baizik eta **haurrek nagusiekin elkarrizketan zuzenean parte hartzen dutenean egiten du erabilerak gora.** Horrela gertatu bederatzi herritatik zortzitan. Iturmendi izan da salbuespen bakarra (kasu honetan haurren eta helduen arteko elkarrizketetan ez baita euskararik entzun).

2) Bestalde, **bederatzi herriotatik bostetan haurraren presentzia soilak** (hauek elkarrizketan parterik hartu ez arren) **eragina izan du helduen erabileran:** hori gertatu da Altsasun, Irurtzunen, Olaztin, eta oso apalki izan arren baita Iturmendin eta Uharte Arakilen ere.



Beste lau herriotan, berriz, haurren presentzia hutsak ez du eraginik izan helduen erabileran: Arbizun, Etxarri-Aranatzen, Lakuntzan, eta Urdiainen, hain zuzen ere.

3.9 Taldearen osaera

Aurretik azaldu dugun moduan, 2006ko neurketan ikerketa sendotzeko hainbat aldaketa metodologiko egon dira. Besteak beste, erabilera datuak jasotzeko erabiltzen den fitxa egokitu egin da. Aztertu den aldagai berrietako bat neurtzen dugun taldearen osaera izan da; horrekin batera, haurren presentziaren aldagaia ere neurtu da (aurreko atalean azaldu duguna). Aldagai interesgarria da, kasu askotan euskararen erabileran eragin nabaria baitu.



Neurtzen dugun taldearen osaera aztertuz, behatutako taldea adin talde bereko kideez osaturik dagoen ala ez ikusi dugu. Eta horrez gain, taldearen osaeran tartean haurrak izanda edo tartean haurrik izan gabe ere, emaitzak bereizi egin ditugu.

Diagraman ikus daitekeen moduan, Sakanan, **behatutako taldea adin-talde bereko kideez osatua izan denean, erabilera maila baxuagoa izan da** (% 21), taldea adin-talde ezberdineko kideez osatua izan denean baino. Tartean haurrik izan edo ez izan, joera berdina izan da.




Neurtzen dugun taldearen osaerari erreparatuta, emaitzak aldatu egiten dira herritik herrira. Ikus ditzagun, lehendabizi, herri bakoitzean izandako emaitzak diagrametara ekarrita. Eta amaieran, ondorio nagusiak edo antzekotasunak/diferentziak bilduko ditugu:

ALTSASUn:




ARBIZU:

Taldearen osakeraren arabera erabilera (Arbizu)




Taldearen osakeraren arabera erabilera (Arbizu)




ETXARRI-ARANATZEN:

Talde osakeraren arabera erabilera (Etxarri-Aran)




Talde osakeraren arabera erabilera, haurrik gabe (Etxarri-Aranatz)




IRURTZUNen:

Taldearen osakeraren arabera erabilera (Irurtzun)




Talde osakeraren arabera erabilera, haurrik gabe (Irurtzun)




ITURMENDIn:



Taldearen osakeraren arabera erabilera (Iturmendi)





Talde osakeraren arabera erabilera, haurrik gabe (Iturmendi)





LAKUNTZAn:



OLAZTIIn:



UHARTE ARAKIL:



URDIAIN:






Diagrama guztiei begiratuta, beraz, ondorio nagusienak laburbilduta, hauexek lirateke:

- Sakanako herri gehienetan, **haurrak tartean izanda, behatutako taldea adin-talde bereko kideez osatua izan denean, erabilera maila baxuagoa izan da**, taldea adin-talde ezberdineko kideez osatua izan denean baino. Iturmendi izan da salbuespen bakarra.


- **Tartean haurrik izan gabe, ere joera beretsua izan da herri gehienetan**: baina kasu honetan, aldea ez da hain nabarmena izan. Salbuespenak izan dira: Iturmendi, Olazti, eta Urdiain, hain zuzen.

Interesgarria da behatu dugun hiztuna adin-talde bereko batekin hizketan aritu denean jasotako emaitzak aztertzea ere. Izan ere, alde handia dago adin-talde batzuetatik besteetara. Ondorengo diagrametan, herriz herri datu horiek zein izan diren ikus ditzakegu, eta kasu honetan ere, amaieran laburbilduko ditugu ondorio nagusiak:


ALTSASUn:




ARBIZUn:




ETXARRI-ARANATZen:




IRURTZUNen:




ITURMENDIn:




LAKUNTZAn:




OLAZTIIn:



UHARTE ARAKILen:



URDIAINen:



Datu asko ditugu, herriz herri, diagrametan ikus daitekeen moduan. Eta zaila da guztietan datuak bat etortzea. Dena den, joera orokor batzuk bateratzen saiatu gara, eta hara, laburbilduta, zer bil daitekeen:

- **Haurren artean** jaso diren elkarrizketak izan dira erabilera maila altuenekoak Iturmendin, Lakuntzan, eta Olaztin. **Gazteen artean** jasotakoak altuenak, berriz, Arbizon, Etxarrin, Irurtzunen, eta Uharte Arakilen. **Helduen arteko elkarrizketetan** jaso da erabilera altuena Altsasun (eta Iturmendin ere altuenekoa izan da), eta **adinekoen artean**, berriz, Urdiainen (Arbizon eta Lakuntzan ere altuenekoa adinekoetan).

- Esanguratsua da Sakanako bederatzi herriotatik bostetan adinekoen artean ez dela euskaraz elkarrizketarik jaso (Altsasun, Irurtzunen, Iturmendin, Olaztin, eta Uharte-Arakilen). Eta beste lau herrietan, berriz, helduen artean jaso da erabilerarik baxuena (Arbizon, Etxarri-Aranatzen, Lakuntzan, eta Urdiainen)

2001ean datuak ez ziren modu honetan banatuta jaso; beraz, ez daukagu atal honetan bilakaerarik aztertzerik. Aurrera begira egin daitezkeen neurketetan, interesgarria izango da adin-talde berekoen artean jasotako emaitzek zertara egiten duten aztertzea. Horretarako, aurretik esan dugun moduan, beharrezkoa izango da datuak modu berean jasotzea.

3.10 Beste hizkuntzak eta bakarrizketak

Txosten honetan aurretik aipatu dugun moduan, 2006ko neurketan ikerketa sendotzeko hainbat aldaketa metodologiko egon dira. Horien artean sartzen da beste hizkuntzak eta bakarrizketak espreski jasotzea ere.

Neurketarako fitxaren atzeko aldean “**beste hizkuntzak**” jasotzen dira; alegia, herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzun dugunean atal honetan sartu ditugu behatutako pertsonak. Bestalde, atal honen ondoan “**bakarrizketak**” neurtzen dituen atala dugu. Bertan, eskuko telefonoz hitz egiten ari direnak eta bestelakoak (animaliekin, atarrietako interfonoz, etab.) apuntatu ditugu.

Datu askorik ez da jaso Sakanan, ez beste hizkuntzei dagokionean ez bakarrizketei dagokionean, eta ezin hemendik ondorio esanguratsurik atera. Jasotakoaren berri hemen azalduko dugu, laburrean bada ere:

- **Beste hizkuntzei dagokionean**, guztira 101 elkarrizketa neurtu dira Sakanako kale neurketa honetan: 32 elkarrizketa Irurtzunen, 24 elkarrizketa Etxarri-Aranatzen, 16na elkarrizketa Altsasun eta Arbizun, 6 Olaztin eta 5 elkarrizketa Lakuntzan (Uharte Arakilen eta Urdiainen ez batere entzun). Adin-taldeari dagokionez, bestelako hizkuntzan neurturiko ia guztiak helduak izan dira, eta gehienak larunbat arratsaldean entzun dira.


-**Bakarrizketei dagokionean**, berriz, Sakanan guztira 51 bakarrizketa jaso dira: horietako 13 euskaraz, eta 38 gaztelaniaz; bakarrizketetan, beraz, % 25,5 izan da jasotako erabilera. Kasu honetan ere, neurtu diren hiztun gehienak helduak izan dira. Herriz herri, hau izan da bakarrizketetan jasotako erabilera maila: Altsasun % 22 (9 bakarrizketa), Arbizun % 0 (bak.1), Etxarri-Aranatzen % 55 (11 bak.), Irurtzunen % 33 (6 bak.), Iturmendin % 0 (4 bak.), Lakuntzan % 25 (4 bak.), Olaztin % 8 (12 bak.), Uharte Arakilen % 0 (2 bak.) eta Urdiainen % 50 (2 bak.).

4 HIZKUNTZA GAITASUNA ETA BILAKAERA HERRIAN


4.1 Sakanako ezagutza, herriz herri (01)

Sakanako hizkuntza ezagutza (2001eko datuetan oinarriturik) herriz herri aztertu dugu, hiru kategoria nagusitan banatuta: euskaldunak, ia euskaldunak, eta erdaldunak. Ondorengo diagrametan herriko ezagutzak biltzen dira:


ALTSASU:




ARBIZU:




ETXARRI-ARANATZ:




IRURTZUN:




ITURMENDI:




LAKUNTZA:




OLAZTI:



UHARTE ARAKIL:



URDIAIN:









Gatozen segidan, azken urteetan Sakanako herriotako bakoitzean euskararen ezagutzak zer-nolako bilakaera izan duen aztertzea. Ditugun erroldako datuak 2001ekoak direnez, 1986, 1996, eta 2001 urteen arteko alderaketa egin dezakegu. Bilakaera ondorengo orrialdeko diagrametan duzue, lehenik hiztun tipologiaka aztertuta, eta ondoren, adin taldekako bilakaera eta eskualde osoko datuekiko (Sakanako 15 herriak, batez beste) konparaketa.




4.2 Ezagutzaren bilakaera

Hizkuntza ezagutzaren eboluzioa ezagutze aldera, 1986tik 2001era bitarteko hiru hiztun tipologiaren ezagutza-bilakaera duzue ondorengo diagrametan, herriz herri azalduta:

HERRIZ HERRI:







Herriz herri, ezagutzari dagozkion bilakaerak ezberdinak izan dira. Hitzun tipologia bakoitzean, herriz herri bilakaera zein izan den ikusiko dugu jarraian:

EUSKALDUNetan, 15 urteak kontuan harturik, bilakaera positiboa izan da Altsasun, Iturmendin, Olaztin, eta Irurtzunen. Lehen hiru herrietan 7-10 puntu bitarteko igoera gertatu da euskaldunengan, 15 urteak kontuan hartuta. Irurtzunen, berriz, puntu bakarrekoa.

Bilakaera negatiboa izan da, berriz, Arbizun, Etxarri-Aranatzen, Uharte Arakilen, Urdiainen, eta Lakuntzan. 7-9 puntu bitartean jaitsi da lehen lau herrietan euskaldunen kopurua 15 urteotan, eta 2 puntu, berriz, Lakuntzan.

Azken bosturtekoari erreparatuta, berriz, (hau da, 1996tik 2001era), euskaldunetan bilakaera positiboa izan da Altsasun, Olaztin (bietan 5 puntuko igoera), Lakuntzan (3 puntukoa), eta Iturmendin (2 puntukoa). Eta negatiboa, berriz, Urdiainen (9 puntuko jaitsiera), Arbizun (8 puntukoa), Etxarri-Aranatzen (6 puntukoa) eta Uharte Arakilen (puntu bakarrekoa). Irurtzunen, berriz, ez da aldaketarik sumatu bosturteko horretan.


ERDALDUNEK izan duten bilakaerari erreparatuta, 15 urteetan **bilakaera negatiboa izan da herri gehienetan**. Hala nola, Altsasun (25 puntuko jaitsiera), Olaztin (18 puntukoa), Irurtzunen eta Iturmendin (9na puntukoa), Uharte Arakilen (7 puntukoa) eta Urdiainen (2 puntukoa). Bilakaera positiboa Lakuntzan (14 puntuko igoera) eta Arbizun (2 puntuko igoera) soilik izan da. Etxarri-Aranatzen, berriz, bere horretan mantendu da erdaldun kopurua 15 urteotan.

Azkenik, **IA-EUSKALDUNetan, bilakaera positiboa** izan da Sakanako bederatzi herriotatik zortzietan: hamabost urteak kontuan hartuta, 8-15 puntu bitarteko igoera gertatu da Altsasun, Etxarri-Aranatzen, Irurtzunen, Olaztin, Uharte Arakilen eta Urdiainen. 6 puntuko igoera gertatu da Arbizun, eta 2 puntukoa, berriz, Iturmendin. Lakuntzan, hamabost urteotan bilakaera negatiboa gertatu da ia-euskaldunetan: 12 puntuko jaitsiera, hain zuzen.

4.3 Adin taldekako ezagutzaren bilakaera

Euskal Herrian, gaur egun gaztelania nagusi den arren, duela 20 urte hartutako neurriei esker, euskararen etengabeko galera gelditu ez ezik, euskara berreskuratzen ere hasi da, batez ere hezkuntza-sistemari esker. **Berreskurapen horretaz jabetzeko, hizkuntza gaitasunaren bilakaera adinaren arabera aztertzea baino ez dago.** 1986ko erroldako datuak 2001eko erroldako datuekin erkatuz gero, euskarak batez ere gazteenen artean izan duen hazkundera nabaritutako dugu.

Atal honetan ere, herriz herri adin-taldekako ezagutzaren bilakaera zein izan den ikusiko dugu, eta amaieran, herri hauen artean antzeko joerarik izan ote den azalduko dugu.




ALTSASUn, horrela, ezagutzaren **bilakaerarik positiboena jasan duten adin taldeak haurrena eta gazteena** izan dira; ezagutzari dagokionez haurrek 48 puntuko igoera izan dute, eta gazteek 32 puntuan hobetu dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan.

Haurrengan ezagutzan, goranzko bilakaeraren erritmoa haziz joan da urtetik urtera, eta 1996-2001 urteen artean bizi izan du gorakadarik handiena (18 puntutan areagotu dira euskaldunak). **Gazteengan** ere urte horietan gertatu da bilakaerarik nabarmenena (17 puntuko igoera).

Helduengan, apalkiago bada ere, gora egin du ezagutzak hamabost urteotan (4,5 puntuko igoera). Eta kasu honetan ere azken bosturtekoan gertatu da igoerarik nabarmenena.


Adinekoengan, aldiz, ezagutzaren bilakaera negatiboa izan da. Hamabost urteak kontuan hartuta, adinekoengan 9 puntuko jaitsiera gertatu da (jaitsieraren erritmoa bizkortuz joan zen 1996ra arte; azken bosturtekoan, ordea, mantsotu egin da jaitsiera).



ARBIZUn, ezagutzaren bilakaera positiboa jasan duen adin talde bakarra haurrena izan da. Ezagutzari dagokionez haurrek 7 puntu hobetu dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan. 1986tik 1991ra gertatu zen igoerarik nabarmenena; azken bosturtekoan, ordea, haurren ezagutzak ez du gora egin.

Gazteen ezagutza maila bere horretan mantendu da hamabost urteotan. 1986tik 1996ra gorabeherak izan arren, azken bosturtekoan egonkor mantendu da gazteen ezagutza.


Helduengan eta batez ere adinekoengan, berriz, ezagutzaren bilakaera negatiboa izan da Arbizun. Hamabost urteak kontuan hartuta, adinekoengan 17 puntuko jaitsiera gertatu da; helduengan, berriz, 10 puntukoa izan da jaitsiera (bi adin-taldeetan azken bosturtekoan gertatu da bilakaera negatibo nabarmenena).



ETXARRI-ARANATZen, berriz, ezagutzaren bilakaerarik positiboa jasan duen adin taldea **gazteena** izan da; ezagutzari dagokionez gazteek 17 puntu hobetu dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan. Haurrek, berriz, 3 puntu besterik ez.

Haurrengan ezagutza gorantz joan da 1986tik 1996ra; azken bosturtekoan, ordea (1996tik 2001era) bilakaera negatiboa izan da; 8 puntuan jaitsi da, hain zuzen, haurren ezagutza maila. **Gazteengan, aldiz,** bilakaerarik nabarmenena 1991tik 1996ra gertatu da, eta azken bosturtekoan nabarmen mantsotu da bilakaera positiboaren erritmoa.


Helduengan eta adinekoengan, kasu honetan ere, **ezagutzaren bilakaera negatiboa izan da.** Hamabost urteak kontuan hartuta, bi adin-taldeotan antzekoa izan da jaitsiera: adinekoengan 17 puntuko jaitsiera gertatu da; helduengan, berriz, 16 puntukoa izan da jaitsiera.



IRURTZUNen ere antzeko joera errepikatzen da: ezagutzaren **bilakaerarik positiboena jasan duten adin taldeak haurrena eta batez ere gazteena** izan dira; ezagutzari dagokionez haurrek 7 puntuko igoera izan dute, eta gazteek 37 puntuan hobetu dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan.

Haurrengan ezagutzak 1986-1996 urteen artean bizi izan du gorakadarik nabarmenena; ondorengo bosturtekoetan bilakaera negatiboa izan da. **Gazteengan,** bilakaerarik nabarmenena 1991tik 1996ra gertatu arren, azken bosturtekoan ez da hainbeste mantsotu bilakaera positiboaren erritmoa.


Helduengan eta bereziki adinekoengan, kasu honetan ere, **ezagutzaren bilakaera negatiboa izan da.** Hamabost urteak kontuan hartuta, adinekoengan 13 puntuko jaitsiera gertatu da; helduengan, berriz, 5 puntukoa izan da jaitsiera.



ITURMENDIn ezagutzaren bilakaerarik positiboena jasan duten adin taldeak gazteena eta batez ere haurrena izan dira; ezagutzari dagokionez haurrek 71 puntuko igoera izan dute, eta gazteek 47 puntu hobetu dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan.

Haurrengan ezagutzak 1991-1996 urteen artean bizi izan du gorakadarik nabarmenena; ondorengo bosturtekoetan bilakaera mantsotu egin da. **Gazteengan**, berriz, bilakaerarik nabarmenena 1996tik 2001era gertatu da.


Helduengan eta bereziki adinekoengan, kasu honetan ere, ezagutzaren bilakaera negatiboa izan da. Hamabost urteak kontuan hartuta, adinekoengan 34 puntuko jaitsiera gertatu da; helduengan, berriz, 8 puntukoa izan da jaitsiera.



LAKUNTZAn ere ezagutzaren bilakaerarik positiboena jasan duten adin taldeak haurrena eta batez ere gazteena izan dira; ezagutzari dagokionez haurrek 29 puntuko igoera izan dute, eta gazteek 39 puntu hobetu dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan.

Haurrengan ezagutzak 1986-1991 urteen artean bizi izan du gorakadarik nabarmenena. **Gazteengan**, berriz, bilakaerarik nabarmenena 1991tik 1996ra gertatu da.

Helduengan eta bereziki adinekoengan, kasu honetan ere, **ezagutzaren bilakaera negatiboa izan da**. Hamabost urteak kontuan hartuta, adinekoengan 27 puntuko jaitsiera gertatu da; helduengan, berriz, 15 puntukoa izan da jaitsiera.




OLAZTIn ezagutzaren bilakaerarik positiboena jasan duten adin taldeak gazteena eta batez ere **haurrena** izan dira; ezagutzari dagokionez haurrek 55 puntuko igoera izan dute, eta gazteek 32 puntuan hobetu dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan.

Haurrengan ezagutzak 1991-2001 urteen artean bizi izan du gorakadarik nabarmenena. **Gazteengan**, berriz, bilakaerarik nabarmenena 1996tik 2001era gertatu da.

Helduengan ezagutzak ez du gorabehera handirik izan Olaztin hamabost urteotan; puntu bakarra igo da, hain zuzen, helduen ezagutza maila.


Adinekoengan, kasu honetan ere, **ezagutzaren bilakaera negatiboa izan da**. Hamabost urteak kontuan hartuta, adinekoengan 24 puntuko jaitsiera gertatu da.



UHARTE-ARAKILen ere ezagutzaren bilakaerarik positiboena jasan duten adin taldeak gazteena eta batez ere haurrena izan dira; ezagutzari dagokionez haurrek 39 puntuko igoera izan dute, eta gazteek 28 puntuan hobetu dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan.

Haurrengan ezagutzaren bilakaeraren erritmoa haziz joan da, eta 1996-2001 urteen artean bizi izan du gorakadarik nabarmenena. **Gazteengan** ere bilakaerarik nabarmenena bosturteko horretan gertatu da.

Helduengan eta bereziki adinekoengan, kasu honetan ere, **ezagutzaren bilakaera negatiboa izan da**. Hamabost urteak kontuan hartuta, adinekoengan 41 puntuko jaitsiera gertatu da; helduengan, berriz, 20 puntukoa izan da jaitsiera.



Azkenik, URDIAINen ezagutzaren bilakaerarik positiboena jasan duen adin taldea haurrena izan da; haurrek 19 puntuan hobetu dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan. Haurrengan ezagutzak 1986-1991 urteen artean bizi izan du gorakadarik nabarmenena; azken bosturtekoetan, berriz, bilakaera negatiboa izan da (3 puntuko jaitsiera).

Gazteengan, hamabost urteak kontuan hartuta, apalki bada ere ezagutzak bera egin du (1,4 puntu, oro har). Jaitsierarik nabarmenena 1991tik 1996ra gertatu da; azken bosturtekoan, berriz, gora egin du gazteen ezagutzak 7 puntuan.

Helduengan eta adinekoengan, kasu honetan ere, **ezagutzaren bilakaera negatiboa izan da**. Hamabost urteak kontuan hartuta, adinekoengan 20 puntuko jaitsiera gertatu da; helduengan, berriz, 14 puntukoa izan da jaitsiera.

Beraz, oro har, **ezagutzaren bilakaerak izan ditu antzekotasunak bederatzi herri hauetan**: haurrengan eta gazteengan gertatu da ezagutza mailako bilakaerarik nabarmenena. Jaitsierarik nabarmenena, berriz, adinekoengan gertatu da. Eta helduengan, bilakaera negatiboa izan da herri gehienetan, Altsasun eta Olaztin izan ezik.

- Haurrengan, hazkunderik nabarmenena urte ezberdinetan izan da herri bakoitzean: esate baterako, Arbizun, Irurtzunen, Lakuntzan eta Urdiainen 1986tik 1991ra gertatu da; Etxarri-Aranatzen, Iturmendin, eta Lakuntzan, berriz, 1991tik 1996ra; eta Altsasun eta Uharte Arakilen 1996tik 2001era.



- Gazteengan, Sakanako herri gehienetan 1996tik 2001era gertatu da bilakaerarik nabarmenena: hala nola, Altsasun, Iturmendin, Lakuntzan, Olaztin, Uharte-Arakilen, eta Urdiainen. Beste hiru herritan, berriz, (Arbizun, Etxarri-Aranatzen, eta Irurtzunen) 1991tik 1996ra gertatu da igoerarik nabarmenena.

Adinekoek adin talderik euskaldunena izateari utzi diote, beraz; kasurik gehienetan, ordea, (Altsasun eta Olaztin izan ezik) helduen ezagutza maila adinekoenaren azpitik ageri da 2001ean. Beherakada honek azalpen erraza du: helduak izan dira urteotan adin-talderik erdaldunena eta zahartzen joan diren neurrian, gora egin du erdaldunen ehunekoak adinekoen artean, eta, jakina, behera euskaldunenak.

Hau horrela, **ezagutza nolabait gatzetzen** ari dela azpimarra genezake, hots, tradizionalki adinekoek bete duten lekua, gazteenek hartu dute orain Sakanan ere.

Aurrerantzean, beraz, haurrengan eta gazteengan bilakaeraren joera berari eusten bazaio, helduen eta adinekoen adin taldeak teorian euskaldunago bilakatuko dira, eta horrek erabilera ere eragin positiboa izango duela pentsa liteke.

Adin taldeen ezagutzaren bilakaera herri mailan aztertu ondoren, bilakaera hau eskualdeko datuekin alderatzea **interesgarria delakoan, batetik Sakana osoko eta bestetik Nafarroa Ipar mendebaldeko bilakaerak ekarri ditugu hona.** Segidan dituzue eskualdeko ezagutzaren bilakaeraren diagrama horiek:



Bi eskualde edo eremu hauetako datuekin alderatuz, **ezagutzaren bilakaera oso antzekoa izan da bietan**, eta antzekotasun handiak izan ditu Sakanako 9 herrietako datuekin ere:

Haurrengan eta gazteengan gertatu da ezagutza mailako bilakaerarik nabarmenena bi eskualde hauetan ere. Haurrengan, hazkundearen abiadura nahiko konstantea izan da Sakanan (9-11 puntu gora, bosturtekoetik bosturtekorera); Nafarroako Ipar-mendebaldean, berriz, goranzko bilakaeraren erritmoa mantsotuz joan da hamabost urte hauen buruan. Gazteengan, 1991tik 2001era bilakaera nabarmenagoa gertatu da bi eskualdeotan, 1986tik 1991ra baino.

Helduen eta adinekoen ezagutza mailaren bilakaera negatiboa izan da. Jaitsierarik nabarmenena adinekoengan gertatu da (13-15 puntukoa); helduengan, berriz, 4 puntuko jaitsiera gertatu da bi eskualdetan.

Aipagarria da, bestalde, 2001eko datuei erreparatuta, Nafarroa Ipar-mendebaldea osotasunean hartuta, bertako datuak Sakanakoak baino altuagoak direla. Hain zuzen ere, Nafarroa Ipar-mendebaldean % 55etik gorakoak dira adin-taldekako ia datu guztiak 2001ean. Sakanan, berriz, % 66tik beherakoak.

5 EMAITZEN AZTERKETA ETA ESANAHIA

5.1 Espero daitekeen erabilera: kontzeptuaren azalpena

Atal honetan erabilera erreala eta espero daitekeen erabileraren (erabilera isotropiakoaren) arteko alderaketa egingo dugu; bata, erabilera erreala, Kale Neurketan jasotako emaitza da, eta bestea **J.L Alvarez Enparantzaren –Txillardegiren- eredu matematikoa** aplikatu ondoren lortutakoa. Horretarako euskararen ezagutza mailaren arabera espero daitekeen erabilera kalkulatzeko da, hau da, ezagutza hainbestekoa izanik bikotekako, hirukotekako, eta laukotekako elkarrizketetan euskaraz hitz egitea estatistikoki zenbatean den posible aztertzen da. Horretarako gure hipotesian euskaldunak euskaldunekin elkartzen direnean BETI euskaraz mintzatuko direla suposatuko dugu; egoera baikorrena beraz, elebidunak euskararekiko erabat leialak baitira, eta elebidun batekin topatzean beti euskaraz arituko dira.

Beraz, hipotesi horri jarraituta ezagutzaren eta erabileraren arteko erlazioa aztertuko dugu. Sarritan entzun ohi da erabilera ezagutza mailara iristen (edo gerturatzen) ez den bitartean, erabilera baxua dela. Baieztapen hori, ordea, ez da zuzena, ezagutza eta erabilera ezin daitezkeelako bat etorri, gurea bezalako aldebakarreko elebitasun egoera batean.

Azter dezagun ezagutzaren eta erabileraren arteko erlazio hori adibide batekin:

Eman dezagun laukote batean (A, B, D, C) hiru elebidun ditugula: A, B, D. Demagun elebidun horiek euskararekiko erabat leialak direla, alegia, beraien mintzakideak euskaraz baldin badaki beti euskaraz aritzen direla (adibiderako hipotesi didaktiko bat da, dudarik gabe).

Laukote horretan euskararen **ezagutza** % 75 da, lautik hiru baitira euskaraz hitz egiteko gai. Azter dezagun jarraian euskararen **erabilera** .

Horretarako **zoriz** gerta daitezkeen elkarrizketa posibleak kalkulatu ditugu.

Bikoteka, 6 talde ditugu: AB, AD, AC, BD, BC, eta DC. Horietatik C ez dagoenean hitz egingo da euskaraz, hiru kasuetan beraz (AB, AD, eta BD), beste bikoteetan erdaldun elebakarra baitago.

Hirukoteka, 4 talde ditugu: ABD, ABC, ADC, eta BDC. Horietatik elkarrizketa bakarrean hitz egingo da euskaraz (ABD), gainontzeko hiruretan erdaraz mintzatuko dira.

Azkenik, **laukotea** talde bakarra dugu. Eta noski C erdaldun elebakarra bertan egonez gero, erdaraz arituko dira.

Ondorioa garbia da: **hamaika taldetatik** —6 bikote, 4 hirukote eta laukote 1— **lau taldetan** arituko dira euskaraz — 3 bikotetan eta hirukoteko batean—. Hau da, taldeen % 36,4an arituko dira euskaraz.

Erabilera isotropiakoaren formulak aplikatzen baditugu, ikusten dugu nola euskararen **ezagutza % 75** izanik, eta euskaldunak aukera guztietan (mintzakidea euskalduna den guztietan) euskaraz arituko direla suposatuta —**egoera baikorrena**, beraz— erabilera **% 48,16 da**.

5.2 Erabilera erreala eta espero daitekeen erabilera

Aurreko adibidearen oinarria matematikara ekarrita, J.L. Alvarez Enparantzak *-Txillardegik-* espero daitekeen erabilera kalkulatzeko eredu sortu du. Ikus dezagun jarraian Sakanako bederatzi herriotan egindako eredu horren aplikazioa.

Sakanako bederatzi herriotako euskararen ezagutzak, 2001eko erroldaren arabera, hartuko ditugu kontuan atal honetan. Espero daitekeen erabilera (edo erabilera isotropiako) ondorengo formularekin kalkulatu dugu, herriz herri:


$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B =euskararen erabilera maila
 m_B =euskararekiko leialtasuna
 w_2 =bikotearen pisua
 w_3 =hirukotearen pisua
 w_4 =laukotearen pisua
 e_x =elebidunen proportzioa

Euskararen erabilera maila, Altsasun:

$$1(0,5488 \cdot 0,216^2 + 0,2862 \cdot 0,216^3 + 0,1650 \cdot 0,216^4) = 0,029 = \% 2,9$$


Hortaz, Altsasuko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 2,9 da**. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, ordea, % 8,9 da. Espero daitekeena baino 7 puntu altuagoa, hain zuzen.



Euskararen erabilera maila, Arbizun:

$$1(0,5488 \cdot 0,83^2 + 0,2862 \cdot 0,83^3 + 0,1650 \cdot 0,83^4) = 0,620 = \% 62$$


Arbizuko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 62 da**. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, berriz, % 74,2 da. Espero daitekeena baino 12 puntu altuagoa, hain zuzen.



Euskararen erabilera maila, Etxarri-Aranatzen:

$$1(0,5488 \cdot 0,736^2 + 0,2862 \cdot 0,736^3 + 0,1650 \cdot 0,736^4) = 0,46 = \% 46$$


Etxarri-Aranazko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 46 da**. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, ordea, % 51,5 da. Espero daitekeena baino 5 puntu altuagoa, hain zuzen.



Euskararen erabilera maila, Irurtzunen:

$$1(0,5488 \cdot 0,213^2 + 0,2862 \cdot 0,213^3 + 0,1650 \cdot 0,213^4) = 0,028 = \% 2,8$$


Hortaz, Irurtzungo biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 2,8 da**. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, ordea, % 11,6 da. Espero daitekeena baino 8,8 puntu altuagoa, hain zuzen.



Euskararen erabilera maila, Iturmendin:

$$1(0,5488 \cdot 0,284^2 + 0,2862 \cdot 0,284^3 + 0,1650 \cdot 0,284^4) = 0,052 = \% 5,2$$


Iturmendiko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 5,2 da**. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, ordea, % 23,6 da. Espero daitekeena baino 18,4 puntu altuagoa, hain zuzen.



Euskararen erabilera maila, Lakuntzan:

$$1(0,5488 \cdot 0,605^2 + 0,2862 \cdot 0,605^3 + 0,1650 \cdot 0,605^4) = 0,286 = \% \mathbf{28,6}$$


Lakuntzako biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 28,6 da**. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, ordea, % 27,3 da. Espero daitekeena baino 1,3 puntu baxuagoa, hain zuzen.



Euskararen erabilera maila, Olaztin:

$$1(0,5488 \cdot 0,211^2 + 0,2862 \cdot 0,211^3 + 0,1650 \cdot 0,211^4) = 0,027 = \% \mathbf{2,7}$$


Olaztiko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 2,7 da**. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, ordea, % 8,9 da. Espero daitekeena baino 6,2 puntu altuagoa, hain zuzen.



Euskararen erabilera maila, Uharte-Arakilen:

$$1(0,5488 \cdot 0,238^2 + 0,2862 \cdot 0,238^3 + 0,1650 \cdot 0,238^4) = 0,036 = \% 3,6$$


Uharte-Arakilgo biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 3,6 da**. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, ordea, % 13,8 da. Espero daitekeena baino 10,2 puntu altuagoa, hain zuzen.



Euskararen erabilera maila, Urdiainen:

$$1(0,5488 \cdot 0,747^2 + 0,2862 \cdot 0,747^3 + 0,1650 \cdot 0,747^4) = 0,477 = \% 47,7$$

Azkenik, Urdiaingo biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 47,7 da**. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, ordea, % 46,6 da. Espero daitekeena baino puntu bat baxuagoa, hain zuzen.



Esan bezala espero daitekeen erabilerak zera adierazten du: herriko edonork beste edonorekin hitz eginez gero (ausazko konbinaketak eginaz), zenbat aukera dauden estatistikoki biak euskaldunak izateko. Beste era batera esanda, euskaldunek, aukera duten egoera guztietan (leialtasuna %100) euskaraz egiten dutela suposatuz, erabilera zenbatekoa litzatekeen.

Hau erreferentzia teorikoa da, dena den. Jakin badakigu praktikan:

- a) euskaldunen leialtasuna ez dela % 100ekoa izaten: euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla kasu guztietan euskaraz izaten.
- b) herriko edonork ez duela praktikan beste edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin, adin berekoekin eta herriko zenbaitekin ez dugu praktikan inoiz harremanik).

Guzti hau kontuan izanik, herriz herri Erabileraren Neurketan jasotako emaitzak honela balora ditzakegu *espero daitekeen erabilerarekin* alderatuta:

• **Erabilera errealak isotropiakoa gainditu egiten du herri gehienetan: Altsasun** (7 punturengatik), **Arbizun** (12 punturengatik), **Etxarri-Aranatzen** (5 punturengatik), **Irurtzunen** (9 punturengatik), **Iturmendin** (18 punturengatik), **Olaztin** (6 punturengatik), eta **Uharte-Arakilen** (10 punturengatik). Ikus daitekeen moduan, espero zitekeen erabileratik erabilera erreala dagoen koska handiagoa da herri batzuetan besteetan baino. Dena dela, erabilera erreala gainetik izatearen arrazoi nagusiak bi izan daitezke⁴:

1. **Herriko euskaldunak nahiko trinkoturik bizi dira**, gehienbat beraien artean harremantzen direlako. Honela, egunerokoan euskaldunak erdaldunekin erlazio gutxi izatean euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino altuagoa da.
2. **Herriko euskaldunen leialtasuna nahiko handia da**, eta ondorioz, euskaldunen arteko elkarrizketak ia beti euskaraz dira. Horrek ere, euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino altuagoa izatea ekarriko du.

• **Beste bi herritan, berriz, erabilera erreala isotropiakoaren azpitik ageri da:** bietan ere ez askogatik; **Lakuntzan** (1,3 puntu azpitik), eta **Urdiainen** (1,1 puntu azpitik). Kasu honetan, erabilera erreala azpitik izatearen arrazoi nagusiak bi izan daitezke; aurreko kasuan aipatu ditugunaren justu kontrakoak:

⁴ Balorazio hauek egiteko ezinbestekoa da erabileraren bilakaera eta herriaren ezaugarriak sakonkiago aztertzea eta ezagutzea. Honako hau ditugun oinarritzko datuekin egindako irakurketa bat, modu hertsian baino hipotesi bezala gehiago ulertu behar dena

1. **Herriko euskaldunak sakabanaturik bizi dira**, beraien artean gehiegi harremandu gabe. Honela, egunerokoan euskaldunak erdaldunekin erlazio asko izatean euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino baxuagoa da.

2. **Herriko euskaldunen leialtasuna ez da oso handia**, eta ondorioz, euskaldunen arteko elkarrizketak gaztelaniaz izaten dira maiz. Horrek ere, euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino baxuagoa izatea ekarriko du.


Espero daitekeen erabileraren inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero, “Txillardegiren eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa” eranskinera jo dezakezue.

5.3 Eskualdeko, probintziako eta Euskal Herriko datuekiko alderaketa

Eskualdeko hainbat herriren datuak:

ALTSASU	ezagutza (01) % 21,6	erabilera (06) % 8,9	espero zitekeen erabilera (01) % 2,9
ARBIZU	ezagutza (01) % 83	erabilera (06) % 74,2	espero zitekeen erabilera (01) % 62
ETXARRI-ARANATZ	ezagutza (01) % 73,6	erabilera (06) % 51,5	espero zitekeen erabilera (01) % 46
IRURTZUN	ezagutza (01) % 21,3	erabilera (06) % 11,6	espero zitekeen erabilera (01) % 2,8
ITURMENDI	ezagutza (01) % 28,4	erabilera (06) % 23,6	espero zitekeen erabilera (01) % 5,2
LAKUNTZA	ezagutza (01) % 60,5	erabilera (06) % 27,3	espero zitekeen erabilera (01) % 28,6
OLAZTI	ezagutza (01) % 21,1	erabilera (06) % 8,9	espero zitekeen erabilera (01) % 2,7
UHARTE ARAKIL	ezagutza (01) % 23,8	erabilera (06) % 13,8	espero zitekeen erabilera (01) % 3,6
URDIAIN	ezagutza (01) % 74,7	erabilera (06) % 46,6	espero zitekeen erabilera (01) % 47,7

Ondorengo diagraman Sakanako herrien ezagutza eta erabilera jasotzeaz gain, duten ezagutzaren arabera espero daitekeen erabilera (isotropiakoa) biltzen da:




Ezagutzari erreparatuz gero, diferentzia handiak ikusten dira herritik herrira: bederatzik herriotatik lautan, esaterako, % 60tik gorakoa da ezagutza maila: Arbizun % 83, Urdiainen % 75, Etxarri-Aranatzen % 74, eta Lakuntzan % 61. Beste bost herrietan, berriz, % 28tik beherakoa: Iturmendin % 28, Uharte Arakilen % 24, Altsasun % 22, eta Irurtzunen eta Olaztin % 21.

Arbizuk du eskualdeko beste herrieekin alderatuta ezagutza ehunekorik altuenekoa; eta erabilerari dagokionez ere gauza bera esan liteke. Ezagutzarik eta erabilerarik baxuena, berriz, Altsasun eta Olaztin ageri da.

Dena dela, proportzioan, ezagutzagatik espero daitekeen erabilerari erreparatuta, aurretik ere aipatu dugun moduan: **bederatzik herritatik zazpitan jaso den erabilera espero zitekeenaren gainetik ageri da**; bi erabileren artean koskarik handiena Iturmendin, Arbizun eta Uharte-Arakilen ageri da (10 puntutik gorakoa, hain zuzen). **Lakuntzan eta Urdiainen, ordea, erabilera errealak azpitik ageri da puntu bakarrarengatik.**

Eskualdeko, probintziako eta Euskal Herriko datuak:

SAKANA	ezagutza (01) % 37	erabilera (01) % 20,7	espero zitekeen erabilera (01) % 9,3
NAFARROA	ezagutza (01) % 11,8	erabilera (01) % 6,7	espero zitekeen erabilera (01) % 0,8
Euskal Herria	ezagutza (01) % 27	erabilera (01) % 14	espero zitekeen erabilera (01) % 4,7



Sakana eskualdeko datuak ekarri ditugu diagrama honetara, Nafarroako eta Euskal Herriko datuekin alderatu asmoz. Datu hauek guztiak 2001 urteari dagozkionak dira.

Sakanako ezagutza maila (% 37) Nafarroako (% 12), eta Euskal Herriko (% 27) ezagutza baino altuagoa da. Erabilera dagokionez ere, antzera esan liteke: Sakanako erabilera Nafarroakoa baino 25 puntu altuagoa da, eta Euskal Herrikoa baino 10 puntu altuagoa.

Espero daitekeen erabilerrari begiratuta, erabilera erreala espero zitekeenaren gainera ageri zaigu kasu guztietan. Sakanan 11 puntu igotzen da espero zitekeenetik. Nafarroan, berriz, 6 puntu. Eta Euskal Herrian, azkenik, 10 puntu ingurukoa da aldea.

6 DATOZEN URTEETARAKO BEGIRA PROSPEKZIOA (2006-2016)

Atal honetan, datozen urteetarako herriko euskaldungoaren bilakaeraren prospekzioa duzue. Prospekzioa SEI Elkarteak sorturiko BEGIRA tresna erabiliz prestatu dugu eta euskararen ezagutzak, zein espero daitekeen erabilerak datozen hamar urteetan herrian izango duen bilakaeraren berri ematen digu.

ALTSASU

Ezagutzaren bilakaera:

HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Altsasu	6884	6965	1121	1502	0,23	6,03

BEGIRA erabiliz, zera kalkulatu dugu: 1996. eta 2001. urteetako erroldetako biztanleriaren eta euskaldunen datuetatik abiatuta, euskaldunen kopuruak teorikoki zein bilakaera jarraituko duen datozen urteetan (1996tik 2001erako bilakaera berdina jarraituta). Ondorengo taulan dituzue urtez urteko datuak:


ALTSASU	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Euskaldunak	1502	1898	2012	2134	2262	2399	2543	2696	2859	3031	3214	3408
%	21,6	27	28,6	30,2	32	33,8	35,8	37,8	40	42,3	44,8	47,4

Halaber, ezagutzaren bilakaera honetan oinarrituta “espero daitekeen erabilera” edo “erabilera isotropiako” ere kalkula genezake, *Txillardegiren* eredu matematikoan oinarrituz:

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

ALTSASU	Erabilera isotropiako (estimazioa)											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera (%)	2,9	4,7	5,3	5,9	6,7	7,6	8,6	9,7	11	12,5	14,2	16,2

Ondorengo diagraman duzue Altsasun datozen 10 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropiakoak izango duten **bilakaeraren prospekzioa**:



BEGIRA aplikazioa baliagarria zaigu kasu askotan ditugun datuetatik abiatuta bilakaera zein izango den jakiteko.

Kontuan izan, BEGIRako prospekzioa egiteko 1996ko eta 2001eko erroldako datuak erabili ditugula. BEGIRAK, ezagutza aldetik urte horietan gertatu den bilakaera bere horretan mantenduz gero, ezagutzak (eta horren arabera erabilera isotropiakoak) zein bilakaera izango duen azaltzen digu. Kontuan izan 1996tik 2001era Altsasun euskararen ezagutzak gora egin duela (5,3 puntu). Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urtez urte zein izango den ezagutza.

BEGIRA aplikatuta Altsasuko prospekzioak hau adierazten badigu ere, kontuan hartu behar dugu erabilera isotropiakoaren ginetik dagoela erabilera erreala Altsasun. Beraz, pentsa liteke joera hori mantentzen bada erabilera erreala BEGIRAK erakusten digunaren ginetik egongo dela.

ARBIZU

Ezagutzaren bilakaera:


HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Arbizu	895	927	817	769	0,71	-1,20

ARBIZU	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Euskaldunak	769	733	724	715	707	698	690	681	673	665	657	649
%	83,0	76,8	75,4	74,0	72,6	71,2	69,8	68,5	67,2	65,9	64,7	63,5

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

ARBIZU	Erabilera isotropikoa (estimazioa)											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera (%)	61,9	51,2	48,8	46,5	44,4	42,4	40,4	38,6	36,9	35,2	33,6	32,1

Ondorengo diagraman duzue Arbizun datozen 10 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropikoak izango duten **bilakaeraren prospekzioa**:



Kontuan izan 1996tik 2001era Arbizun euskararen ezagutzak behera egin duela (8 puntu). Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urtez urte zein izango den ezagutza.

ETXARRI-ARANATZ

Ezagutzaren bilakaera:


HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Etxarri-Aranatz	895	2337	817	1858	21,16	17,86

ETXARRI-ARANATZ	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Euskaldunak	1858	3585	4225	4980	5869	6918	8153	9609	11326	13348	15732	18542
%	79,5	71,2	69,2	67,4	65,5	63,7	62	60,3	58,7	57,1	55,5	54

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

ETXARRI-ARANATZ	Erabilera isotropiako (estimazioa)											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera (%)	55,7	42,4	39,6	37	34,7	32,4	30,4	28,4	26,6	24,9	23,4	21,9

Ondorengo diagraman duzue Etxarri-Aranatzen datozen 10 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropiakoak izango duten **bilakaeraren prospekzioa**:



Kontuan izan 1996tik 2001era Etxarri-Aranatzen euskararen ezagutzak behera egin duela (6 puntu). Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urtez urte zein izango den ezagutza.

BEGIRA aplikatuta Plentziako prospekzioak hau adierazten badigu ere, kontuan hartu behar dugu erabilera isotropiakoaren gainera dagoela erabilera erreala Plentzian. Beraz, pentsa liteke joera hori mantentzen bada erabilera erreala BEGIRAK erakusten digunaren gainera egongo dela

IRURTZUN

Ezagutzaren bilakaera:


HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Irurtzun	1950	2119	410	452	1,68	1,97

IRURTZUN	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Euskaldunak	452	489	498	508	518	528	539	549	560	571	582	594
%	21,3	21,6	21,6	21,7	21,8	21,8	21,9	22	22	22,1	22,2	22,2

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

IRURTZUN	Erabilera isotropiako (estimazioa)											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera (%)	2,8	2,9	2,9	2,9	2,9	3	3	3	3	3	3	3,1

Ondorengo diagraman duzue Irurtzunen datozen 10 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropiakoak izango duten **bilakaeraren prospekzioa**:



Kontuan izan 1996tik 2001era Irurtzunen euskararen ezagutza hiru dezimatan igo dela. Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urte urte zein izango den ezagutza.

BEGIRA aplikatuta Plentziako prospekzioak hau adierazten badigu ere, kontuan hartu behar dugu erabilera isotropiakoaren ganetik dagoela erabilera erreala Irurtzunen, 9 puntugatik. Beraz, pentsa liteke joera hori mantentzen bada erabilera erreala BEGIRAK erakusten digunaren gainetik egongo dela.

ITURMENDI

Ezagutzaren bilakaera:


HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Iturmendi	355	345	93	98	-0,57	1,05

ITURMENDI	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Euskaldunak	98	102	103	104	105	107	108	109	110	111	112	113
%	28,4	30,3	30,8	31,3	31,8	32,3	32,9	33,4	33,9	34,5	35,1	35,6

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

ITURMENDI	Erabilera isotropiako (estimazioa)											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera (%)	5,2	6	6,2	6,4	6,7	6,9	7,1	7,4	7,7	7,9	8,2	8,5

Ondorengo diagraman duzue Iturmendin datozen 10 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropiakoak izango duten **bilakaeraren prospekzioa**:



Kontuan izan 1996tik 2001era Iturmendin euskararen ezagutzak, apalki bada ere, gora egin duela (2,2 puntu). Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urtez urte zein izango den ezagutza.

LAKUNTZA

Ezagutzaren bilakaera:


HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Lakuntza	995	1017	573	615	0,44	1,42

LAKUNTZA	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Euskaldunak	615	651	660	669	679	689	699	708	719	729	739	750
%	60,5	62,9	63,5	64,1	64,8	65,4	66	66,7	67,3	68	68,7	69,3

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

LAKUNTZA	Erabilera isotropiako (estimazioa)											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera (%)	28,6	31,4	32,1	32,9	33,7	34,5	35,3	36,2	37	37,9	38,8	39,7

Ondorengo diagraman duzue Lakuntzan datozen 10 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropiakoak izango duten bilakaeraren prospekzioa:



Kontuan izan 1996tik 2001era Lakuntzan euskararen ezagutzak gora egin duela (3 puntu). Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urtez urte zein izango den ezagutza.

BEGIRA aplikatuta Lakuntzako prospekzioak hau adierazten badigu ere, kontuan hartu behar dugu erabilera isotropiakoaren zertxobait azpitik dagoela erabilera erreala Lakuntzan. Beraz, pentsa liteke joera hori mantentzen bada erabilera erreala BEGIRAK erakusten digunaren azpitik egongo dela.

OLAZTI

Ezagutzaren bilakaera:


HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Olazti	1594	1624	254	342	0,37	6,13

OLAZTI	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Euskaldunak	342	434	460	489	519	550	584	620	658	698	741	787
%	21,1	26,3	27,8	29,4	31,1	32,9	34,8	36,8	38,9	41,1	43,5	46

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

OLAZTI	Erabilera isotropikoa (estimazioa)											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera (%)	2,7	4,4	5	5,6	6,3	7,2	8,1	9,2	10,4	11,7	13,3	15,1

Ondorengo diagraman duzue Olaztin datozen 10 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropikoak izango duten **bilakaeraren prospekzioa**:



Kontuan izan 1996tik 2001era Olaztin euskararen ezagutzak gora egin duela (5,2 puntu). Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urte urte zein izango den ezagutza.

UHARTE ARAKIL

Ezagutzaren bilakaera:


HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Uharte Arakil	783	773	194	184	-0,26	-1,05

UHARTE-ARAKIL	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Euskaldunak	184	176	175	173	171	169	167	166	164	162	160	159
%	23,8	23,1	22,9	22,7	22,5	22,3	22,2	22	21,8	21,6	21,5	21,3

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

UHARTE-ARAKIL	Erabilera isotropiako (estimazioa)											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera (%)	3,6	3,3	3,3	3,2	3,2	3,1	3	3	2,9	2,9	2,8	2,8

Ondorengo diagraman duzue Uharte Arakilen datoen 10 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropiakoak izango duten **bilakaeraren prospekzioa**:



Kontuan izan 1996tik 2001era Uharte Arakilen euskararen ezagutzak behera egin duela (puntu bakarra). Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urtez urte zein izango den ezagutza.

BEGIRA aplikatuta Uharte Arakilgo prospekzioak hau adierazten badigu ere, kontuan hartu behar dugu erabilera isotropiakoaren gainera dagoela erabilera erreala Uharten ere. Beraz, pentsa liteke joera hori mantentzen bada erabilera erreala BEGIRAK erakusten digunaren gainera egongo dela.

URDIAIN

Ezagutzaren bilakaera:


HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Urdiain	630	653	524	488	0,72	-1,41

URDIAIN	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Euskaldunak	488	461	454	448	442	435	429	423	417	411	406	400
%	74,7	68,6	67,2	65,7	64,3	63	61,6	60,3	59,1	57,8	56,6	55,4

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

URDIAIN	Erabilera isotropikoa (estimazioa)											
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera (%)	47,7	38,7	36,8	34,9	33,2	31,5	29,9	28,5	27	25,7	24,4	23,2

Ondorengo diagraman duzue Urdiainen datozen 10 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropiakoak izango duten **bilakaeraren prospekzioa**:



Kontuan izan 1996tik 2001era Urdiainen euskararen ezagutzak behera egin duela (8,5 puntu). Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urtez urte zein izango den ezagutza.

7 ERANSKINAK

7.1 Txillardegiren eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa

OINARRI TEORIKOAZ ETA KONTZEPTUAREN ESANAHIARI BURUZKO ZENBAIT AZALPEN (laburpen gisa)

Txostenean “*espero daitekeen erabilera*” bezala izendatu duguna, berez, J.L. Alvarez Enparantza “*Txillardegik*”k garaturiko “*erabilera isotropiakoa*” da, eta egile beraren Eredu Matematikoan oinarrituriko kontzeptua da. Ondorengo lerrootan kontzeptu honen oinarria, esanahia eta erabilgarritasunari buruzko laburpen bat duzue.

Gaiari buruz informazio osatuagoa nahi duenak jo beza BAT Soziolinguistika aldizkariaren 28. zenbakira (51-68 orr, Xabier Isasi eta Arantxa Iriarteren artikulua, bertatik hartu ditugu laburpen honetan letra etzanean ageri diren testu batzuk). Eredu osoa, berriz, *Txillardegik* eta Xabier Isasik argitaraturiko *Soziolinguistika Matematikoa* liburuan duzue (UEU-EKB, Bilbo; 1994).

Laburpen honetan *Txillardegiren* eredutik zenbait puntu aipatuko ditugu soilik, Kale Erabileraren Neurketa egiteko moduarekin eta Erabilera Isotropiakoa kontzeptuarekin lotura zuzena dutenak, beti ere erabilitako metodologiaren eta kontzeptuen ulermena errazteko xedez.

Abiapuntua: ukipen egoera

Hasteko, kontuan izan behar dugu gurea hizkuntza ukipen egoera bat dela (gure kasuan, gizarte berean bi hizkuntza):

Txillardegik garatutako eredu matematikotik alderdi bat besterik ez dugu hartu. Hizkuntzen arteko ukipen egoerari aplikatuko diogu. Egoera horretan, esan dugunez, B hizkuntzako hiztun elebakar multzo esanguratsurik ez dago, hiztun guztiak A hizkuntzaren jabe diren bitartean, haien arteko batzuk B hizkuntza jakin eta erabiltzeko moduan daude.

(gure kasuan B euskara litzateke eta A gaztelania edo frantsesa).

Elebidunen aldetik B hizkuntzaren erabilera gertaera estokastiko gisa definitu dugu. Azken buru, ez dugu ezagutzen aldeztatik zein den elebidunen portaera linguistikoa. Biztanle bakoitzak eta guztien artean momentu jakinetan hizkuntza harremanen bat gerta daitekeela suposatzen badugu, orduan B hizkuntzaren erabilera maila elebidunen proportzioaren funtzio zuzena izaten da.

Hortaz, kontuan izan behar dugu, batetik **ukipen egoeran gaudela** eta gainera, gure kasuan, euskara dakiten guztiek dakitela gaztelania edo frantsesa. Ondorioz, euskara egoera jakin batzuetan erabili ahal izango da, eta egoera horien zenbatekoa B hizkuntzaren hiztunen (alegia, euskaldunen) proportzioaren arabera izango da. Gogoan izan **erabiltzeko aukeraz** ari garela, aukera

potentzialaz, gero beste gauza bat da zer hizkuntza jokaera duten elebidun horiek, baina aukerak zenbat izango diren kalkula dezakegu.

Probabilitatea:

Zein da B hizkuntzako 2 hitzunen arteko elkarrizketa bat gertatzeko probabilitatea?

$$PR_{BB} = e_B \cdot e_B = e_B^2 \quad \text{Non, } e_B \text{ euskal hiztunen proportzioa den (Otik 1era)}$$

Demagun, adibidez, %55a euskalduna den herri batean gairela. Bertako bi biztanle (edozein) kalean elkartzen badira, zenbatekoa da biak euskaldunak izateko probabilitatea?

$$PR_2 = 0,55 \cdot 0,55 = 0,302 \text{ edota } \% 30,2$$

Baina, noski, kalean ematen diren elkarrizketak ez dira beti bi pertsonen artekoak izaten: bikoteen, hirukoteen, laukoteen eta hiztun talde handiagoen arteko elkarrizketak ere eman daitezke. Eta zenbatekoa da hirukote bat kalean elkartuta elkarrizketa euskaraz izateko probabilitatea, alegia; zenbatekoa da hiru hiztun horiek euskaldunak izateko probabilitatea? (lehenago adibide bera erabiliz);

$$PR_3 = 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 = 0,166 \quad \text{alegia } \%16,6$$

Eta hirukotea izan beharrean, laukotea bada, probabilitatea oraindik eta gehiago gutxitzen da:

$$PR_4 = 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 = 0,091 ; \%9,1$$

Eta probabilitatea gero eta txikiagoa da taldea handitu ahala. *Txillardegiren* hitzetan: “*talde handietan (n =4,5,6,...), B hizkuntzaren erabilerak erritmo esponentzial batean egiten du ihes*”. Eta errealitatean zenbateko taldetan ematen dira elkarrizketak? Orain arte Euskal Herri mailan egindako Kale Erabilera Neurketen informazioa erabil dezagun horretarako:

Bikote, hirukote eta laukoteen proportzioa:

EKBk 1993 eta 1997ko neurraldian solaskide kopurua behatu zuen. Hau da, behatutako elkar hizketak bikoteetan, hirukoteetan, laukoteetan, boskoteetan edo talde handiagoetan gertatzen zirenen arabera, bikote, hirukote, laukote, boskote,... kopuruak zenbatu eta haien artean zeintzuk egiten zuten euskaraz zehaztu ere.

Bi neurketaldi horietan solaskide kopuruaz, guk w_i pisu estatistikoak deitutakoaz, jasotako datuetatik abiatuz, laukoteetara mugatu dugu hiztun taldeen tamainaren eragina eta w_2 , w_3 eta w_4 pisu estatistikoak balio finkotzat jo. Horrela, batenaz beste bikote, hirukote eta laukoteen pisuak ondorengoak finkatu ditugu:

$$\begin{matrix} w_2 = 0.5488 \\ w_3 = 0.2862 \end{matrix}$$

$$w_4 = 0.1650$$

Beraz, kalean behatutakotik ondorioztatu dugu lau hiztunetik gorako taldeen arteko elkarrizketak oso gutxitan gertatzen direla (talde handiagoetan normalki ez da elkarrizketa bakarra egoten, gehiago baizik). Bestalde, orain badakigu bikote, hirukote eta laukoteen pisua zenbatekoa den eta proportzio hori gure kalkuluetan finkotzat hartuko dugu.


Horrela ba, probabilitate mailan, euskarazko elkarrizketak gerta daitezen dagoen aukera (berriz ere e_B herriko euskaldunen proportzioa izanik) hau izango da:

$$PR_B = w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4$$

Baina, noski, gogoan izan hasieran aipatu duguna: **ukipen egoeran gaudela** eta gainera, gure kasuan, euskara dakiten guztiek dakitela gaztelania edo frantsesa. Ondorioz, Txillardegik dioskunez: “*B –ren erabilera eman dadin erabat beharrezkoa den baldintza bakarra da elebidunak, horretara beharturik ez egon arren, leialtasunez, beraien artean B erabiltzen jarraitzea (lasai-lasai erabil baitezakete A beraien artean ere)*”.

Orain arteko urratsetan, elebidunen proportzio jakin bat izanik, hiztunen artean euskarazko elkarrizketak eman daitezen zenbat aukera ditugun kalkulatu dugu. Baina, jakina, mila arrazoi ezberdin tarteko, gerta daiteke euskaldunen arteko elkarrizketak erdaraz izatea. Beharrezko ez izanik ere euskaraz egite hori Txillardegik hizkuntza leialtasun bezala izendatu du (m_B).

Erabilera maila hiru osagaien funtzio zuzena izango litzateke, elebidunen proportzioa (e_x), mintzakide taldearen tamaina edo solaskide kopurua erabilera askean (w_i) eta hizkuntza gutxiagotuarekiko leialtasuna (m_B). Horrela, erabilera maila kalkulatzeko formula ondorengoa izango litzateke.



Formula honetatik abiatuta, erabilera isotropiakoa (edo espero daitekeena) kalkulatzeko $m=1$ dela suposatuko dugu, alegia, euskara dakitenen arteko elkarrizketak ematen direnean beti euskaraz direla eta egoera isotropiakoa dela. Formula, hortaz:

$$P_B = w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4$$

Azken oharrak: ISOTROPIA / ANISOTROPIA eta KONPAKTAZIOA:

Probabilitateak kalkulatzeko garaian, B hizkuntzaren ageriko erabilera zorizko gertaeratzat jo dugu. Nonahi eta noiznahi ager daitekeen jazoera dela esan nahi dugu. Gure erdua eredu estokastikoa dela esaterakoan, B hizkuntzaren erabilerari buruzko aurriritzi guztiak bazterten ditugula esan gura dugu, zuzenak zein okerrak, ez dugu aurriritzi bakar bat onartzen. Esaten dugu, B hizkuntzaren erabilera, elebidunak tarteko direlarik, gertaera probablea dela, besterik ez. Orokorrean, kontrako frogatu ezean, gizartea linguistikoki **isotropiako** da; B hizkuntzaren erabilera, printzipioz, elebidunen proportzioaren funtzio zuzena da.

Orain arteko urratsetan gizarteko egoera isotropiakotzat hartu dugu, hortaz: alegia, suposatu dugu edozein hitzunik beste edozeinekin hitz egiteko probabilitatea duela.

Dena den, J.L. Alvarez Enparantzak eta X. Isasik egindako azterketetan ikusi da herri askotan hori ez dela horrela. Neurketak eginda, kasu batzuetan m-ren balioa 1 baino handiagoa lortzen zen neurketaren emaitza errealak gorago azaldu dugun formularen sartuta, eta hori estadistikoki onartezina da (leialtasuna %100ekoa baino handiagoa izatea suposatuko luke). Txillardegiren hitzetan “Neurketen emaitzak (mota guztietako herrietan behin eta berriz errepikatuak) soilik uler zitezkeen A hizkuntzako elebakarren kopuru handi bat hitzun elebidunekin harremanetan ez zegoela suposatuz. A hizkuntzako elebakarren isolamentu linguistiko honek B hizkuntzaren erabilera hobetzen du”

”Horrek behartu gintuen isotropia linguistikoaren hipotesia alde batera uztera. **Euskal Herrian ez da isotropia hori ematen**”

Horrek esan nahi du nolabait gure herrietan bi sare edo komunitate ezberdin daudela (euskarazkoa eta erdarazkoa) eta bateko zein besteko kideen artean harremanak izateko aukera ez dela estatistikoki askea, ausazkoa, guk hasieran suposatu dugun bezala. Beste modu batean esanda, hitzun bakoitzak bere sareko kideekin maizago ditugula harremanak beste sarekoekin baino.

Errealitate honetaz jabetzeak eraman zituen J.L. Alvarez Enparantza eta X. Isasi eredu matematikoaren garapenean urrats berriak ematera. Besteak beste, “gizarteratze tasa” (g) kontzeptua erabili dute, aipatu bi sareen arteko integrazio maila deskribatzeko.

Gorago esan bezala, neurketen emaitzetako bat izan da ohartzea badagoela A hizkuntzako elebakarren proportzio bat ez duena elebidunekin harremanik izaten. $g=0$ izango da inolako harremanik ez dagoenean (alegia, erdaldunen eta euskaldunen sareak bata besteagandik erabat berezita bizi direnean, harremanik gabe) eta $g=1$ izango da herriko A elebakar guztiak elebidunen sarean erabat integratuta dauden kasuetan (kasu honetan sare bakarrean leudeke guztiak, elebakarrak eta elebidunak).

Pentsatuko duzue, kasu errealik gehienak mutur batean zein bestean baino, bien artean kokatzen dira. Horrela, hemen aipatu ditugunez gain beste formula batzuk ere erabilia, kaleko erabilera neurtuta Txillardegiren erdua iristen da komunitate baten leialtasuna (m) eta gizarteratze tasa (g) zehaztera. Azken honek, nolabait Txepetx-ek definituriko euskaldungoaren konpaktazioa kontzeptuaren antzeko zerbait adierazten digu.

Dena den, Kale Erabileraren neurketa egin dugun honetan leialtasun eta konpaktazio kalkulurik egin ez dugunez, oraingoan kontzeptu hauen aipamena baino ez dugu egin nahi, interesa duen oro hasieran aipatu iturrietara jotzera gonbidatuz.

Ikusi dugu, hortaz, nola kalkula daitekeen **erabilera isotropiakoa** herri batean euskaldunen proportzioa zenbatekoa den jakinda. Gerora ikusi dugu nola praktikan Euskal Herrian ez den egoera isotropiakoa ematen, eta **gizarteratze tasa** ere kontuan hartu behar dugun.

Dena den, erabilera isotropiakoa oso erabilgarria zaigu, herrian neurtu dugun erabilera errealaren emaitzak altuak edo baxuak diren baloratu ahal izateko erreferentzia teoriko bat ematen digulako. Eta, horretarakoxe erabili dugu guk erabilera isotropiakoa txosten honetan.

7.2 Neurketa arauak eta oharrak

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta **kalean soilik dabilen jendearen** arteko hizkuntz erabilpena. **Leku itxiak** beraz (tabernak, dendak, kiroldegiak, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), **neurketa honetatik kanpo geratzen dira**.

Neurketa, ez inkesta:

Kalean goazela jendeari ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntza hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzaz ari den mintzatzen. Ez **galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso taulan, jendeari ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

Ibilbidea:

Neurketa egiteko **ibilbide jakin bat** egongo da finkaturik alde zaurretik (Soziolinguistika Klusterreko teknikariek udalekoekin adostua). Ibilbidea herriko kalerik jendetsuenek osatuko dute, normalean erdigunean (erdigunea zentzu zabalean ulertuta). Ibilbideak inguru ezberdinak zeharkatzea komeni da: erosketa-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. Ibilbideak hasi eta bukatu leku berean egin beharko du eta **neurtzaileak behar hainbat aldiz egingo du ibilbidea**, neurraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Neurtzaile bakoitza bere ibilbidean paseatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka eserlekuren batean eserita neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatzeko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide guztian zehar egitea da (gainera, plaza edo antzerakoetan ez bada, eserita egonda jende gutxiago neurtuko dugu).

Datuak nola jaso:

Datuak idazteko honekin batera doan eredu erabiliko duzue, eta han ageri den moduan idaztea komeni da, hots, neurtutako lagun bakoitzeko makilatxo bat jarritz.

2001eko neurketan hiru motatako fitxak baziren ere, 2006ko neurketa honetan fitxa bakarra erabiliko dugu. Fitxan lau datu hartzen dira kontutan:

1. **Hizkuntza:** hiru zutabe nagusi ditugu: euskara, frantsesa / gaztelera edo beste hizkuntzak.
2. **Adin taldea:** behin elkarrizketa hizkuntza zehaztuta adin taldea zehaztu behar da: haurrak (14 urte bitartean), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte) eta zaharrak (65 urtetik gorakoak). Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
3. **Neurtzen dugun taldearen osakera:** behatutako taldea adin talde bereko kideez osaturik dagoen ala ez apuntatuko dugu. Eta ez badira denak adin talde bereko multzoan sartzen, tartean haurrak present dauden ala ez jasoko dugu eta present badira mintzakide diren ala ez..

4. **Generoa:** bukatzeko mintzakideen sexua jasoko dugu.

Adibideak:

Neurketa nola egiten den azaltzeko hiru adibide jarriko ditugu:

1.- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten

- ◆ 1.pausoa: euskaraz zutabe nagusian (hizkuntza),
- ◆ 2.pausoa: adin talde bereko zutabea (adin talde berekoak)
- ◆ 3.pausoa: haurren atalean (adin taldea)
- ◆ 4.pausoa: nesketan (emakumea) apuntatzen dugu makilatxo bat eta gizonezkoetan beste bat (sexua).

2.- Senar emazteak erdaraz hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe:

- ◆ 1.pausoa: frantsesa/gaztelera zutabea (hizkuntza)
- ◆ 2.pausoa: adin talde ezberdinekoak zutabea, haurrak ez dira mintzakide azpi multzoan.
- ◆ 3.pausoa: helduetan (adin taldea)
- ◆ 4.pausoa: gizonezkoetan (sexua) makilatxo bat jartzen da, eta emakumezkoetan beste bat (sexua).
- ◆ 5.pausoa: haurretako emakumezkoen zutabea makilatxo bat jarriko dugu (alabarena)
- ◆ 6.pausoa: gazteen gizonezkoen zutabea makilatxo bat jarriko dugu (semearena).

3.- Senar emazteak, 5 urteko alabarekin eta 16 urteko semearekin doaz kaletik, ama alabari euskaraz zuzentzen ari zaio:

- ◆ 1.pausoa: euskara zutabea (hizkuntza)
- ◆ 2.pausoa: adin talde ezberdinekoak zutabea, haurrak mintzakide azpi multzoan
- ◆ 3.pausoa: helduetan (adin taldea)
- ◆ 4.pausoa: gizonezkoetan (sexua) makilatxo 1 jartzen da, eta emakumezkoetan beste bat (sexua).
- ◆ 5.pausoa: haurretako emakumezkoen zutabea makilatxo bat jarriko dugu (alabarena)
- ◆ 6.pausoa: gazteen gizonezkoen zutabea makilatxo bat jarriko dugu (semearena).

Azalpena merezi duen puntua da hau: lau lagun elkarrekin doazenean normalean bat entzungo dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horretan guk fitxan lau lagun entzun ditugula jarriko dugu, hau da, lau makilatxo, hizketan zihoan bakar horren hizkuntzan. Tartean haur bat hitz egiten ari bada edo berari zuzenduta badago elkarriketa haurrak mintzakide zutabea jarriko ditugu makilatxoak dagokien azpimultzoan (adin taldearen eta sexuaren arabera).

Fitxaren atzeko partean **“beste hizkuntzak”** jasotzen dira, alegia, Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu atal honetan sartuko ditugu behatutako pertsonak. Ipar Euskal Herrian **“beste hizkuntzak”** atalean euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzak sartuko ditugu. Atal honen ondoan **“bakarriketak”** neurtzen dituen atal dugu. Bertan, eskuko telefonoz hitz

egiten ari direnak eta bestelakoak (animaliekin, atarrietako interfonoz, etab.) apuntatuko ditugu. Atal horretan, jakina, elkarrizketa bakoitzeko marratxo bakarra egingo dugu, mintzakide bakarra entzun (eta ikusiko) baitugu.

Fitxaren laukitxo bat betetzen denean beste fitxa batera pasatu behar da. Fitxa bat baino gehiago erabiltzen bada zenbakitu behar dira fitxak eta behaketaren bukaeran datu guztiak jaso behar dira fitxa bakar batean. Guri azken fitxa hau pasatuko diguzu. Neurketa bakoitzean fitxa berri bat erabili behar da.

Beste ohar batzuk:

- ◆ Ibilbidean zehar pertsona bera —neurraldi eta elkarrizketa berean— ez dugu behin baino gehiagotan neurtuko. Alegia, pertsona bera jende berdinarekin eta hizkuntza berean entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. Aldiz, taldean partaideren bat aldatzen bada (norbait etorri edo norbait joan) edo taldeak hizkuntza aldatzen badu (mintzakideak berdinak izan arren), hori gertaera ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.
- ◆ Neurtzaileekin hitz egiten dutenak ez dira neurtuko.
- ◆ Dudazko kasuak ez jaso, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakigunean, jaso gabe utzi.
- ◆ Inoiz ez dugu galderarik egingo, ez galdetu ezer: ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzaz ari den mintzatzen... Ez da ezer galdetu behar, ez baikara inkesta bat egiten ari; gurea neurketa denez, entzundakoa jaso behar dugu.

Azken oharrak:

Euskara gutxi entzutea gogorra izan arren, **beti egia jarri**. Euskaltzaleon joera psikologikoa izaten da errealitateak adierazten duena baino euskara gehiago aditu nahi izatea. Alferrik gabiltza ordea, geure buruak engainatzen: azterketa hau **euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua** da eta errealitatea egiazki nolakoa den jakitea interesatzen zaigu. Honetan, mesedez, zorrotzak izan. Taberna, denda eta bestelako leku itxien barnealdeetan neurtzerik ez dagoen arren, **haien sarrera-irteeretan bai**. Hori oso kontutan hartzekoa izan daiteke euria eginez gero batez ere. Bukatzeko, esan, garrantzitsua dela neurketa egun zehatzak noiz izango diren ez iragartzea, bestela gerta daiteke euskaldunek euskara ohizkoa baino gehiago erabiltzea, eta normala den egoeraz bestelako datuak jasotzea.